| |
|---|
| **_2008ko ABENDUAREN 31N EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA_** |
| **_ACTA DE LA SESION PLENARIA ORDINARIA CELEBRADA EL DIA 31 DE ENERO DE 2008_** |
| **_ALKATE-UDALBURUA_**<br>**_ALCALDE-PRESIDENTE_**<br><br>D. David Latxaga Ugartemendia jn. |
| **_ZINEGOTZIAK / CONCEJALES ASISTENTES:_**<br>D. Alberto Gallastegi Abendibar jn.<br>D. Anartz Gandiaga Zarazua jn.<br>Dª Sara Chamizo Diez and.<br>D. Andoni Agirrebeitia Abendibar jn.<br>D. Iñigo Artetxe Arrieta jn.<br>D. Iñigo Bilbao Rekagorri jn.<br>Dª Karmele Aurtenetxe Elorriaga<br>D. Antonio Castellet Conesa jn.<br>D. Alberto Borobia Conde jn.<br>Dª Alicia Eugenia Hernandez Cid and.<br>Dª Belen Saralegui Valero and.<br>D. Vicente Julian Silva Gonzalez jn.<br>D. Miguel Rodriguez González jn.<br>D. Javier Atxurra Gojenola jn.<br>Dª Beatriz Calvo Fernández and. |
| **_IDAZKARI NAGUSIA_**<br>**_LA SECRETARIO GENERAL_**<br>Dª Teresa Virto Larruscain and. |
| **_LA INTERVENTOR DE FONDOS MUNICIPALES_**<br>**_UDAL FONDOEN KONTUHARTZAILEA_**<br>Dª Cristina Bilbao Salterain and. |
| **_LA TECNICO DE LA ADMINISTRACION GENERAL_**<br>**_ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA_**<br>Dª Jasone Ibarra Unzueta and. |

Amorebieta-Etxanoko udaletxeko batzar-aretoan, bi mila eta zortziko urtarrilaren hogeita hamaikan, goizeko zortzi eta erdietan, David Latxaga Ugartemendia Alkate-udalburu jaunaren agindupean, aktaren hasieran aipatu diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, agiria izenpetu duen Teresa Virto Larruscain idazkari andrearekin, horretarako deialdia egin delarik, Aparteko Osoko Bilkura egiteko. Bertan izan dira, baita ere, Cristina Bilbao Salterain udal funtsen kontu-hartzailea eta Jasone Ibarra Unzueta administrazio orokorreko teknikaria.

Ez da bertaratu Amagoya Madariaga Olea anderea.

Alkate jaunaren aginduz bilerari hasiera emanda, saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udalbatzako kide guztiei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

En el Salón de Sesiones del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano a las ocho horas y treinta minutos del día treinta y uno de enero de dos mil ocho, bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente D. David Latxaga Ugartemendia se reunieron los Sres/Sras. Concejales que al comienzo del acta se expresan, con asistencia de la suscrita Secretario General, Dª Teresa Virto Larruscain, con el fin de celebrar sesión Plenaria Ordinaria, previa convocatoria cursada al efecto, estando presente también la Interventor de Fondos Municipales, Dª Cristina Bilbao Salterain y la Tecnico de Administración General, Dª Jasone Ibarra Unzueta.

No asiste la Concejal de EAJ-PNV Dª Amagoya Madariaga Olea.

Abierta la sesión de orden del Sr. Alcalde, se somete a la consideración de la Corporación los asuntos comprendidos en el Orden del Día de la presente sesión sobre los cuales se adoptaron los acuerdos siguientes:

**1.- 2007KO ABENDUAREN 21EAN EGIN ZEN AURREKO BILERAREN AKTA ONESTEA.**

2007ko abenduaren 21ean egin zen aurreko bileraren akta irakurri da eta Calvo andreak hauxe adierazi du:

**Calvo and., PPkoa:**

15. orrian hitz bat gorriz idatzita azaltzen da, Silvaren interbentzioan hain zuzen. Harritu egin ninduen.

Nik alde egin nuen Udalbatzatik galderak eta eskarietan idatzi bat irakurri zenean. Aktan ez dago jasota. Aktan jasotzea nahi nuke.

Zuzenketa egin ondoren, akta aho batez onetsi da.

**1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN CELEBRADA EL DÍA 21 DE DICIEMBRE.**

Dada lectura del acta de la sesión anterior celebrada el día 21 de Diciembre de 2007, la Sra. Calvo manifiesta:

**Sra. Calvo del PP:**

*En la página 15 aparece una palabra en rojo, en la intervención de Silva. Me chocó.*

*Yo abandone el Pleno en ruegos y preguntas cuando se leyó un escrito. No consta en acta. Quería que constara en acta.*

Hecha la corrección es aprobaba por unanimidad.

**2.- UDALETXEKO ERAIKINA BERRITU ETA HANDIAGOTZEKO**

**2.- APROBACIÓN INICIAL DEL PROYECTO DE REFORMA Y AM-**

**PROIEKTUA HASIERA BATEAN ONESTEA ( 08-176 ESP.)**

Udaletxeko eraikina eraberritu eta handiagotzeko proiektua, MAAB Arquitectura y Urbanismo, S.L-k idatzia, aztertu da.

KONTUAN IZANIK apirilaren 21eko 11/99 Legeak aldatutako apirilaren 2ko 7/85 Legeko 22-2-ñ) artikuluan xedatutakoa.

KONTUAN IZANIK Hirigintza eta Etxebizitzaren Informazio Batzordeak emandako irizpena.

Jarraian gaia eztabaidatzeari ekin zitzaion:

**Calvo and., PPkoa:**

Gu proiektu honen alde gaude, Udalak betetzen ez zuen muga arkitektonikoak kentzea da garrantzitsuena; baita Amorebietaren beharrei ere Udal honek erantzutea, nola hazten ari den ikusita, Udaletxe berri honekin behar honi ere erantzun behar zaio. Beraz, proiektu honi, hasierako onarpenari, baietza emango diogu.

Aldiz, ez gaude oso ados eman den egoera batekin. Guk proiektu honen aurkezpena prentsaurreko batean egingo zela informatu dugu, abisatuko zitzaigula esan ziguten, eta talde politiko honi behintzat ez dio inork deitu; gure ustez hau ez da horren zuzena.

**Alkate jn.:**

Nik dakidala talde guztiak zeuden gonbidatuta. Atxurra jn. egon zen, mundu guztia zegoen gonbidatuta.

**Calvo and., PPkoa:**

Bai, gonbidatuta denak ginen, bai. Esan egin dut. Baina prentsaurrekoaren ordua konfirmatuko zigutela esan zitzaigun. Eta horixe da esan ez

**PLIACIÓN DEL EDIFICIO DE LA CASA CONSISTORIAL (EXP. Nº 08-176).**

Examinado el Proyecto de Reforma y ampliación del edificio de la Casa Consistorial, redactado por MAAB Arquitectura y Urbanismo, S.L.

CONSIDERANDO lo dispuesto en el Art. 22-2-ñ) de la Ley 7/85, de 2 de Abril, modificada por la Ley 11/99, de 21 de Abril.

CONSIDERANDO el Dictamen emitido por la Comisión Informativa de Urbanismo y Vivienda.

Seguidamente se procedio a debatir el asunto:

**Sra. Calvo del PP:**

*Nosotros estamos a favor de este proyecto, lo más importante es la eliminación de las barreras arquitectónicas que este Ayuntamiento no cumplía, las necesidades también de lo que es Amorebieta, de cómo está creciendo, también se tiene que cubrir con esta nueva Casa Consistorial, por lo que vamos a apoyar el proyecto, la aprobación inicial.*

*Lo que no estamos tan de acuerdo es con una situación que se ha producido. Nosotros hemos informado que se iba a dar una rueda de prensa de la presentación del mismo, se nos dijo que se nos iba a avisar de la misma, por lo menos a este grupo no se le ha llamado, eso es lo que nos parece menos correcto.*

**Sr. Alcalde:**

*Que yo sepa, se invitó a todos los grupos. Estuvo el Sr. Atxurra, se le invitó a todo el mundo.*

**Sra. Calvo del PP:**

*Si, invitados estábamos todos. Sí lo he dicho. Se nos dijo que se nos iba a confirmar la hora de la rueda de prensa. Eso es lo que no se nos ha dicho.*

digutena.

**Alkate jn.:**

Komunikazio akats bat izan da, baina ez da inor baztertzeko inolako asmorik egon.

**Sr. Alcalde:**

*Ha sido un error de comunicación, pero no ha habido ninguna intención de excluir a nadie.*

**Castellet jn., PSE-EEkoa:**

Egun on.

Gure taldea abstenitu egin zen Hirigintza Batzordean proiektu honi buruz. Guri aurkeztu zaigu. Oro har, ondo zegoela iruditu zitzaigun, hobetzeko proposamenen bat egin genuen eta hori ere jaso egin da. Beraz, proiektu hau onartzearen alde gaude, gure herriarentzat oso garrantzitsua izango baita.

**Sr. Castellet del PSE-EE:**

*Buenos días.*

*Nuestro grupo se abstuvo en la Comisión de Urbanismo sobre este proyecto. A nosotros se nos ha presentado, nos parece en general que estaba bien hicimos alguna propuesta de mejora que también se ha recogido, por lo tanto estamos a favor de aprobar este proyecto que será importante para el pueblo.*

Udalbatzak, aho batez, honakoa erabaki du:

ERABAKIA:

LEHENENGOA: Udaletxeko eraikina eraberritu eta handiagotzeko proiektua, MAAB Arquitectura y Urbanismo, S.L-k idatzia, hasiera batean onestea.

BIGARRENA: Jendaurrean hogei egunez ikusgai jartzea, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita, egokitzat jotzen diren alegazioak aurkez ditzatzen.

HIRUGARRENA: Proiektu hori behin-betiko onetsiko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe, jendaurrean ikusgai dagoen epean alegaziorik aurkezten ez bada.

La Corporación por unanimidad:

ACUERDA:

PRIMERO: Aprobar inicialmente el Proyecto de Reforma y ampliación del edificio de la Casa Consistorial, redactado por MAAB Arquitectura y Urbanismo, S.L.

SEGUNDO: Exponer al público durante un plazo de veinte días a partir de la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia a fin de que puedan presentarse cuantas alegaciones se estime oportuno.

TERCERO: El citado Proyecto se entenderá definitivamente aprobado, sin necesidad de nuevo acuerdo, si en el plazo de exposición al público no se presenta alegación alguna.

**3.- BIZITEGI-ERABILERAKO ERAIKINETAN FATXADA ETA TEILATUAK ZAHARBERRITU, KONPONDU ETA ERABERRITZEKO, IGOGAILUAK JARTZEKO ETA OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEKO DIRU-LAGUNTZEN EMAKIDARI BURUZKO ORDENANTZAREN BEHIN BETIKO ONESPENA-**

**3.- DACIÓN DE CUENTA DE LA APROBACIÓN DEFINITIVA DE LA ORDENANZA PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA LA REHABILITACIÓN, REPARACIÓN Y RENOVACIÓN DE FACHADAS , CUBIERTAS Y PARA LA SUPRESIÓN DE BARRERAS ARQUITECTÓNICAS E INSTALACIÓN DE ASCENSORES EN**

**REN BERRI EMATEA.**

Amorebieta-Etxano udalerrian bizitegi-erabilerako eraikinetan fatxada eta teilatuak zaharberritu, konpondu eta eraberritzeko, igogailuak jartzeko eta oztopo arkitektonikoak kentzeko diru-laguntzen emakidari buruzko Ordenantzaren behin betiko onespenaren berri jaso du Udalbatzak. Jendaurreko erakusketa epean alegazio edo iradokizunik aurkeztu ez dutenez, behin betiko onespenaren iragarkia eta testu osoa 2007ko abenduaren 27ko BAOn (251 zk.) argitaratu da.

**EDIFICIOS DE USO RESIDENCIAL EXP. Nº 07-4853.**

Queda enterada la Corporación de la aprobación definitiva de la Ordenanza específica para la concesión de subvención para la rehabilitación, reparación y renovación de fachadas y cubiertas y para la supresión de barreras arquitectónicas e instalación de ascensores en edificios de uso residencial dentro del término municipal de Amorebieta-Etxano, dado que una vez transcurrido el plazo de exposición al público, no se han presentado reclamaciones o sugerencias por los interesados, publicándose el anuncio de su aprobación definitiva, junto con el texto íntegro, en el B.O.B. núm. 251, del día 27 de Diciembre de 2007.

**4.- 2008KO EKITALDIRAKO ZERGA ETA PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUZTEN ZERGA ORDENANTZEN ALDAKETAK BEHIN BETIKO ONETSI ETA INDARREAN JARRI DIRELA JAKINARAZTEA.**

Behean aipatzen diren espedienteen behin betiko onespenaren berri jaso du Udalbatzak:

- Kudeaketa, Zerga-bilketa eta Ikuskaritza arautzen duen Zerga Ordenantza aldatzeari buruzko espedientea.
- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen Zerga Ordenantza aldatzeari buruzko espedientea.
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen Zerga Ordenantza aldatzeari buruzko espedientea.
- Ondasun higiezinen gaineko zerga arautzen duen Zerga Ordenantza aldatzeari buruzko espedientea.
- Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen Zerga Ordenantza aldatzeari buruzko espedientea.
- Ekonomi Jardueren gaineko zerga arautzen duen Zerga Ordenantza aldatzeari buruzko espedientea.

**4.- DACIÓN DE CUENTA DE LA APROBACIÓN DEFINITIVA Y ENTRADA EN VIGOR DE LAS MODIFICACIONES DE LAS ORDENANZAS FISCALES REGULADORAS DE LOS TRIBUTOS Y PRECIOS PÚBLICOS PARA EL EJERCICIO 2008.**

Queda enterada la Corporación de la aprobación definitiva de los expedientes que a continuación se relacionan:

— Expediente de modificación de la Ordenanza General de Gestión, Recaudación e Inspección.
— Expediente de modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre vehículos de tracción mecánica.
— Expediente de modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras.
— Expediente de modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre bienes inmuebles.
— Expediente de modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre el incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana.
— Expediente de modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre

- Zerbitzu publikoak eman eta administrazioko jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituen Zerga Ordenantza aldatzeari buruzko espedientea.
- Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa eta aprobetxamendu bereziarengatiko tasak arautzen dituen Zerga Ordenantza aldatzeari buruzko espedientea.
- Amorebieta-Etxanoko Eguneko Zentroan zerbitzuak eman eta jarduerak burutzeagatiko prezio publikoen ordenantza aldatzeari buruzko espedientea.
- Zerbitzuak eman edo udal jarduerak (Zornotza Aretoa, Kultura eta Gazteria Saila, Euskaltegia, Jauregibarria aparkalekua) burutzeagatiko prezio publikoen ordenantza aldatzeari buruzko espedientea.
- Zerbitzua ustiatzen duten enpresek tokiko jabari publikoaren erabilera edo aprobetxamendu bereziarengatiko tasak arautzen dituen Zerga Ordenantza aldatzeari buruzko espedientea.
—Amorebieta-Etxanoko Udalaren jabetzako mendietan larreen aprobetxamendua arautzen duen ordenantza aldatzeari buruzko espedientea.

Jendaurreko erakusketa epean interesatuek alegaziorik edo erreklamaziorik aurkeztu ez dutenez, behin betiko onespenaren iragarkia 2007ko abenduaren 31ko (astelehena) BAOn (253 zk.) argitaratu da.

actividades económicas.
— Expediente de modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora de las Tasas por prestación de servicios o la realización de actividades administrativas.
— Expediente de modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora de las Tasas por utilización privativa y aprovechamiento especial del dominio público municipal.
— Expediente de modificación de la Ordenanza del Precio Público por la prestación de servicios y la realización de actividades desarrolladas en el Centro de Día de Amorebieta-Etxano.
— Expediente de modificación de la Ordenanza de los Precios Públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades municipales (Zornotza Aretoa; Área de Cultura y Juventud; Euskaltegi; Parking Jauregibarria).
— Expediente de modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora de las Tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local por empresas explotadoras de servicios.
— Expediente de modificación de la Ordenanza reguladora del aprovechamiento de pastos en montes de propiedad del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano.

Dado, que una vez transcurrido el plazo de exposición al público, no se han presentado reclamaciones o sugerencias por los interesados, publicándose el anuncio de su aprobación definitiva, junto con el texto íntegro de las modificaciones, en el B.O.B. núm. 253, del lunes 31 de Diciembre de 2.007.

**5.- UDAL ARAUDI ORGANIKOAREN 43. ARTIKULUA ALDATZEA, GAI POLITIKO ETA ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMANETARAKO INFORMAZIO BATZORDEA SORTZEKO.**

GERTAERA. Udal Araudi Orga-

**5.- MODIFICACIÓN DEL ART. 43 DE REGLAMENTO ORGÁNICO MUNICIPAL, PARA LA CREACIÓN DE LA COMISIÓN INFORMATIVA DE ASUNTOS POLÍTICOS Y RELACIONES INSTITUCIONALES EXP. Nº 08-435.-**

RESULTANDO la propuesta de

nikoren II. Tituluko V. Kapituluaren 43.1 artikulua aldatzeko proposamena egin du Alkatetzak.

KONTUAN IZANIK Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.1.c), 47.2.f) y 49 artikuluetan xedatutakoa.

KONTUAN IZANIK Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoari buruzko Araudia onetsi zuen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuan, 123 artikulutik 126ra eta 134tik 138ra xedatutakoa.

KONTUAN IZANIK Udal Araudi Organikoaren 43 artikulutik 48ra ezarritakoa.

KONTUAN IZANIK Udalbatzako Osoko Bilkurari dagokiola gai honen gaineko erabakia hartzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluak emandako ahalmenak direla bide.

KONTUAN IZANIK Langileria, Antolaketa eta Barne Jaurpideko Batzordeak emandako irizpena.

Jarraian gaia eztabaidatzeari ekin zaio.

Udalbatzak, aho batez, honakoa erabaki du:

**ERABAKIA:**

**LEHENENGOA:** Amorebieta-Etxanoko Udalaren Araudi Organikoaren 43.1 artikulua aldatzea hasiera batean onestea, honela geratzen delarik:

43. art.

1.- Honako Batzordeak sortzen dira, aipatzen diren arlo horietan Osoko Bilkurak erabaki behar dituen gaiak aztertu eta txostena emateko funtzioak dituztela:

a) Hirigintza eta Etxebizitzako Batzordea.

b) Ekonomia, Ogasun eta Ondare Batzordea.

c) Lan eta Zerbitzuetako Batzordea.

d) Langileria, Antolaketa eta Barne

Alcaldía de modificación del artículo 43.1 del Capítulo V del Título II del Reglamento Orgánico municipal.

CONSIDERANDO lo dispuesto en los artículos 20.1.c), 47.2.f) y 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local.

CONSIDERANDO lo dispuesto en los artículos 123 a 126 y 134 a 138 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

CONSIDERANDO lo determinado por los artículos 43 a 48 del Reglamento Orgánico municipal.

CONSIDERANDO que es competencia del Pleno de la Corporación la resolución del presente asunto en base a las facultades conferidas por el Art. 22.2.d) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local.

CONSIDERANDO el Dictamen emitido por la Comisión Informativa de Personal, Organización y Régimen Interior.

Seguidamente se procedió a debatir el asunto:

La Corporación por unanimidad:

**ACUERDA**:

**PRIMERO**: Aprobar inicialmente la modificación del Reglamento Orgánico municipal del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano, consistente en la modificación del artículo 43.1, que queda redactado como sigue:

Art. 43

1.- Con funciones de estudio e informe de los asuntos que hayan de ser sometidos a la decisión del Pleno en las áreas que se indican, se crean las Comisiones siguientes:

a) Comisión de Urbanismo y Vivienda.

b) Comisión de Economía, Hacienda y Patrimonio.

c) Comisión de Obras y Servicios.

d) Comisión de Personal, Organiza-

Araubideko Batzordea.

e) Osasun, Gizarte Ongizate eta Berdintasun Batzordea.

f) Kultura eta Euskara Batzordea.

g) Irakaskuntza, Gazteria eta Kirol Batzordea.

h) Ekonomia Sustapen eta Enplegu Batzordea.

i) Ingurumen eta Garapen Iraunkorreko Batzordea.

j) Politika Gaietarako eta Erakundeen arteko Harremanetarako Batzordea.

**BIGARRENA:** Aldaketa hori hogeita hamar eguneko epean jendaurrean ikusgai jartzea, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarkioholtzan eta udalaren web orrian argitaratuz, interesatuek egokitzat jotzen diren erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.

Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, Udal Araudi Organikoaren 43.1 artikulua aldatzea onesteko behin betiko erabakia behin betikoa izango da.

ción y Régimen Interior.

e) Comisión de Sanidad, Bienestar Social e Igualdad.

f) Comisión de Cultura y Euskera .

g) Comisión de Enseñanza, Juventud y Deporte.

h) Comisión de Promoción Ecomómica y Empleo.

i) Comisión de Medio Ambiente y Desarrollo Sostenible.

j) Comisión de Asuntos Políticos y Relaciones Institucionales.

**SEGUNDO**: Exponer dicha modificación a información pública por el plazo de treinta días, mediante publicación por anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia, Tablón de Edictos y página web del Ayuntamiento para que puedan presentar cuantas reclamaciones y sugerencias se estimen oportunas.

En el caso de que no se presente ninguna reclamación o sugerencia, el acuerdo de aprobación inicial de modificación del artículo 43.1 del Reglamento Orgánico municipal devendrá definitivo.

**6.- LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA: GOI ARKITEKTO/INGENIARI TEKNIKOAREN LANPOSTUARI ARDURALDI BEREZIKO BERARIAZKO OSAGARRIA AITORTZEA (08/437 ESP.).**

Goi arkitekto/ingeniari teknikoaren lanpostuari arduraldi bereziko berariazko osagarria aitortzeko Alkate Udalburuaren proposamena aztertu da, hain zuzen, soldataren %20ko osagarria, hirurtekoak kenduta.

KONTUAN IZANIK Langileria, Antolaketa eta Barne Araubideko Batzordeak emandako irizpena.

Udalbatzak, aho batez, honakoa erabaki du:

ERABAKIA:

LEHENENGOA: Funtzionarioen

**6.- MODIFICACIÓN DE LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJOS: RECONOCIMIENTO DE COMPLEMENTO ESPECÍFICO POR DEDICACIÓN ESPECIAL AL PUESTO DE ARQUITECTO/INGENIERO TÉCNICO EXP. Nº 08/437.-**

Examinada la propuesta del Sr. Alcalde-Presidente de reconocimiento de complemento específico al puesto de Ingeniero-Arquitecto Técnico, en la cuantía de un 20% de sueldo excluido trienios.

CONSIDERANDO el Dictamen emitido por la Comisión de Personal y Regimen Interior.

La Corporación por unanimidad:

ACUERDA:

PRIMERO: Modificar puntualmente la Relación de Puestos de Trabajo de los

lanpostuen zerrenda unean-unean aldatzea, goi arkitekto/ingeniari teknikoaren lanpostuaren mailari dagokion %20ko ordainsari-osagarria aitortzeko (hirurtekoak kenduta)

BIGARRENA: Erabaki hori jendaurrean ikusgai jartzea.

**7.- URTARRILAREN 25EKO 97/2008 ZK.KO ALKATETZA DEKRETUAREN BERRI EMATEA (08-325 ESP.)**

07/1008 zk.ko Alkatetza Dekretua irakurri da, hitzez hitz honakoa dioena:

2007ko ekainaren 26ko 1150/2007 Alkatetza Dekretu bidez, EAJ/PNVko zinegotzi Amagoya Madariaga Olea anderea Gobernu Batzarreko kide eta lehenengo alkateorde izendatu dute.

2008ko urtarrilaren 23an aipatutako zinegotzi andereak ume bat izan zuen eta 16 asteko amatasun-baja hartuko du, indarreko legeriak ezartzen duen epealdia, alegia.

**OINARRIA:** 2008 urterako aurrekontua betearazteko udal arauaren 18 artikuluaren arabera, lehenengo alkateordeak karguan arduraldi esklusiboa badu, beraren lansaria Udalak ordaintzen du eta aurrekontuak ezarritako zenbatekoan; gainera, Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean jarraituko du eta enpresakuotak Udalak hartuko ditu bere gain.

**OINARRIA:** Bereizkeriarik ez egiteko printzipioan oinarrituta eta udal langile guztiekin egiten den bezalaxe, amatasun-bajak ezin dezake ordainsarien murrizketarik eragin eta orain arte jaso dituen ordainsari berdinak jarraitu du kobratzen; beraz, Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoari 7.300 € gehitu behar zaizkio.

**KONTUAN HARTURIK** 57/2003 Legeak aldatu zuen 7/1985 Legearen 23 eta 75 artikuluetan, azaroaren 28ko 2568/1986 LEDren 46 eta 47 artiku-

Funcionarios reconociendo al puesto de Ingeniero/Arquitecto Técnico, un complemento de destino del 20% del sueldo, excluidos trienios.

SEGUNDO: Exponer al público el citado acuerdo.

**7.- RATIFICACIÓN DEL DECRETO DE ALCALDÍA Nº 97/2008 DEL 25 DE ENERO, EXP. Nº 08-325.-**

Leído el Decreto de Alcaldía nº 97/2008, que copiado literalmente dice lo siguiente:

Por Decreto de Alcaldía 1150/2007 de fecha 26 de junio de 2007, se nombró miembro de la Junta de Gobierno y Primer Teniente de Alcalde a la Concejal de EAJ/PNV Dª Amagoya Madariaga Olea.

El día 23 de enero de 2008, la Concejal ha dado a luz un niño y es su deseo acogerse a la baja por maternidad, durante las 16 semanas que actualmente esta reconocida en la normativa vigente.

**CONSIDERANDO:** que de conformidad con lo regulado en el art 18 de la Norma de ejecución presupuestaría para el año 2008, el/la primer Teniente de Alcalde, mientras desempeñe su cargo con dedicación exclusiva , será retribuido/a por el Ayuntamiento, en la cuantía señalada presupuestariamente, permaneciendo de Alta en la Seguridad Social Régimen General, asumiendo el Ayuntamiento las cuotas patronales.

**CONSIDERANDO:** Que en base al principio de no discriminación, se estima necesario, del mismo modo que se realiza con el resto del personal trabajador del Ayuntamiento, que la baja maternal no suponga una deducción de las retribuciones que se venían percibiendo y en consecuencia se debe complementar la prestación económica de la seguridad social en 7.300€.

**CONSIDERANDO:** Lo señalado en el art 23 y 75 de la ley 7/1985 modifi-

luetan, eta UAOren 41 artikuluan ezarritakoa.

**XEDATU DUT:**

**LEHENENGOA:** Amagoya Madariaga Olea anderearen kargu-uztea, Gobernu Batzordeko kide gisa eta lehenengo alkateordearen karguan.

**BIGARRENA:** Amatasun-baja dela eta 16 astez jasoko duen Gizarte Segurantzaren prestazioa osatzeko 7.300 € gehitzea.

**HIRUGARRENA:** Iñigo Artetxe Arrieta jauna arduraldi osoz Gobernu Batzordeko kide eta lehenengo alkateorde izendatzea.

**LAUGARRENA:** Osoko Bilkurari honako dekretuaren berri ematea berretsi dezan, eta udalaren iragarki-oholtzan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Udalbatzak aho batez erabaki du 2008ko urtarrilaren 25eko 07/1008 Alkatetza Dekretua berrestea.

**8.- UDAL AGIRITEGIKO ZERBITZUAREN ARAUDIA HASIERA BATEAN ONESTEA (08/436 ESP.)**

Langileria eta Barne Araubideko Informazio Batzordeak emandako irizpena ikusi da, Udal Agiritegiaz arduratzen den funtzionarioak aurkeztu duen Udal Agiritegiko Zerbitzuaren Araudi proposamenaren ingurukoa.

GERTAERA. Araudia aurreko legegintzaldian eman zitzaien Batzordeko kideei azter zezaten, eta ez da inongo zuzenketarik aurkeztu.

GERTAERA. Udaletxeko erakinean egingo diren aldaketak direla eta, garai egokia da agiritegiaren araudia egiteko.

KONTUAN IZANIK, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak eraldatutako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49) artiku-

cada en la ley 57/2003 ; arts. 46 y 47 de R.D. 2568/1986 de 28 de noviembre y art. 41 de R.O.M.

**D I S P O N G O:**

**PRIMERO:** Cesar como miembro de la Junta de Gobierno y Primer Teniente de Alcalde a Dª Amagoya Madariaga Olea.

**SEGUNDO:** Completar el subsidio de la Seguridad Social, a percibir durante las 16 semanas de baja por maternidad, en 7.300€.

**TERCERO:** Designar como miembro de la Junta de Gobierno y Primer Teniente de Alcalde a D. Iñigo Artetxe Arrieta, en régimen de dedicación exclusiva.

**CUARTO:** Dar cuenta del presente Decreto al Pleno para su ratificación y publicarlo en el Tablón de Edictos del Ayuntamiento y Boletín Oficial de Bizkaia.

La Corporación por unanimidad acuerda ratificar el Decreto de Alcaldía nº 07/1008, de fecha 25 de Enero de 2008.

**8.- APROBACIÓN INICIAL DEL REGLAMENTO DEL SERVICIO DEL ARCHIVO MUNICIPAL EXP. Nº 08/436.-**

Visto el Dictamen emitido por la Comisión Informativa de Personal y Régimen Interior relativo a la propuesta de Reglamento del Servicio de Archivo Municipal presentada por el funcionario encargado del Archivo Municipal.

RESULTANDO que el Reglamento fué entregado en la anterior legislatura a los componentes de la Comisión para su estudio y no ha sido presentada enmienda alguna.

RESULTANDO el momento adecuado para dar una normativa al archivo, por los cambios que se van a realizar en el edificio de la Casa Consistorial.

CONSIDERANDO lo señalado en el artículo 49 de la Ley 7/l.985, de 2 de Abril,

luan ezarritakoa.

Udalbatzak, aho batez, honakoa erabaki du:

LEHENENGOA: Udal Agiritegiko Zerbitzuaren Araudia hasiera batean onestea.

BIGARRENA: Araudia hogeita hamar egunez jendaurrean jartzea, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki-oholean eta udalaren web orrian argitaratuz, bidezko diren erreklamazio eta iradokizunak aurkez ditzaten.

HIRUGARRENA: Araudi hori behin-betiko onartuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe, jendaurrean ikusgai dagoen epean alegaziorik aurkezten ez bada.

**9.- ANDER URIARTE PUJANA JAUNAREN IDAZKIA, ZORNOTZA ETA EUSKAL HERRIKO EGOERA POLITIKOARI BURUZKOA.**

Ander Uriarte Pujana jaunaren idazkia irakurri da, hitzez hitz, hauxe dioena:

Abenduaren 17an Igor Zearreta atxilotu dute bi urteko kartzela zigorra bete dezan. Igor 2005eko maiatzean atzeman zuen Guardia Zibilak eta bost egunez inkomunitatua egon ondoren torturak eta tratu txarrak salatu zituen.

2007ko ekainean egin zuten epaiketa Espainiako Auzitegi Nazionalean. Fiskala eta defentsako abokatuak akordio batera heldu ziren: Igorri bi urteko kartzela zigorra ezarri zioten eta, ondorioz, espetxera joatea saihestu zuen, ezarritako espetxe zigorra bi urtekoa edo gutxiagokoa denean, kartzelara joatea ebitatzen denez gero. Harrigarria bada ere, orain bi urteko kartzela zigorra bete behar duela ebatzi du epaileak.

Aurrekaririk gabeko erabakia da, azken 30 urte hauetan auzitegi batean

Abril, modificada por la Ley 11/1999 de 21 de Abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.

La Corporación por unanimidad acuerda:

PRIMERO: Aprobar inicialmente el Reglamento del Servicio de Archivo Municipal.

SEGUNDO: Exponer al público el citado Reglamento durante el plazo de treinta días, mediante anuncio en el B.O.B., Tablón de Edictos del Ayuntamiento y publicación de la WEB Municipal, para que puedan presentarse cuantas reclamaciones y sugerencias se estimen oportunas.

TERCERO: El citado Reglamento se considerará definitivamente aprobado si durante el plazo de exposición al público no se presenta alegación o reclamación alguna.

**9.- ESCRITO DE D. ANDER URIARTE PUJANA SOBRE LA SITUACIÓN POLÍTICA EN AMOREBIETA Y EUSKAL HERRIA.**

Leído el escrito formulado por D. Ander Uriarte Pujana que copiado literalmente dice lo siguiente:

El día 17 de diciembre, Igor Zearreta fue detenido para cumplir una condena de dos años de cárcel. En mayo de 2005 Igor fue apresado por la Guardia Civil y después de estar cinco días incomunicado, denunció torturas y malos tratos.

En junio de 2007 se celebró el juicio en la Audiencia Nacional española. El fiscal y el abogado de la defensa llegaron a un acuerdo: imponer una condena de 2 años. De esta manera, Igor no tuvo que ingresar en prisión, ya que si la condena es de 2 años o menos, se puede eludir el ingreso en prisión. No obstante, y aunque parezca increíble, un juez ha resuelto que tiene que cumplir la condena de dos años de cárcel.

Es una decisión sin precedentes, una decisión que ningún tribunal ha adoptado en los últimos 30 años, tal y como afirman

inoiz hartu ez den erabakia, abokatuek eurek zehaztu dutenez. Salbuespeneko ebazpen juridiko baten aurrean gaude eta hori salbuespen egoera batean bizi garen seinale da. Azken boladan erabaki juridiko politiko ugari hartzen ari dira: Batasuneko Mahai Nazionaleko kideen atxiloketa eta kartzelatzea, 18/98 sumarioko auzipetuen epaiketa eta espetxeratzea, herri desberdinetako hainbat atxiloketa, Euskal Herriaren aldeko Alderdi Independentisten ilegalizazioa, Lehendakariaren aurkako epaiketa…

Urte luzez Euskal Herriaren independentzia bultzatzen duten mugimendu politikoen aurkako jazarpenaren beste kapitulu bat gehiago da. Euskal herritarren eskubide zibil eta politikoen aurkako eraso estrukturala dago horien oinarrian, gero eta talde edo jarduera gehiago bere baitan biltzen dituena.

Konfrontazio egoera honek negoziazio-prozesuan du oinarria, negoziazio prozesuaren hausturan, alegia, eta orain horren ondorioak ikusten ari gara: berriro ere, errepresioa eta gatazka politikoa puri-purian. Estatuaren estrategia errepresiboaren baitan kokatu behar dugu Igorren kontra hartutako aurrekaririk gabeko erabaki juridiko-politikoa.

Hori horrela, ondokoa proposatzen dugu Zornotzako Udalbatzaren Osoko Bilkurak onets dezan:

1. Igor Zearreta Zornotzako bizilagunaren eskubideak errespetatzea eta salbuespeneko erabaki judizialik ez ezartzea.
2. Udal honek Euskal Herriaren aurkako erabaki juridiko-politikoak salatzen ditu eta, bereziki, estrategia horren ondorioz auziperatu eta zigortuak izan diren gizon-emakume guztiekin: Batasuneko Mahai Nazionaleko kideen atxiloketa eta kartzelatzea, 18/98 sumariko auzipetuen epaiketa eta es-

los propios abogados. Estamos ante una resolución jurídica de excepción y eso es señal de que vivimos en una situación de excepción. Últimamente se están tomando muchas decisiones jurídico-políticas: detención y encarcelamiento de los miembros de la Mesa Nacional de Batasuna, juicio y encarcelamiento de los encausados en el sumario 18/98, detenciones en diferentes pueblos, ilegalización de partidos independentistas de Euskal Herria, juicio contra el Lehendakari….

Es otro capítulo más de la persecución contra el movimiento político que fomenta e impulsa la independencia de Euskal Herria. En su base, está el ataque estructural contra los derechos civiles y políticos de los ciudadanos, un ataque que cada vez abarca más y más actividades y agrupaciones.

En la base de esta situación de enfrentamiento está el proceso de negociación, es decir, en la ruptura del proceso de negociación, y ahora estamos viendo sus consecuencias: una vez más, represión y conflicto político en candelero. Y en esa misma estrategia represiva del Estado situamos la decisión jurídico-política y sin precedentes adoptada contra Igor.

Por tanto, hacemos la siguiente propuesta para su aprobación por el Pleno del Ayuntamiento de Zornotza:

1. Que se respeten los derechos de nuestro vecino y que no se adopten resoluciones judiciales de excepción.
2. Que este ayuntamiento denuncie las decisiones jurídico-políticas contra Euskal Herria y en especial, aquellas contra todos los encausados-as y condenados-as a consecuencia de esa estrategia: detención y encarcelamiento de los miembros de la Mesa Nacional de Batasuna, juicio y encarcelamiento de los encausados en el sumario 18/98, detenciones en diferentes pueblos, ilegalización de

petxeratzea, herri desberdinetako hainbat atxiloketa, Euskal Herriaren aldeko Alderdi Independentisten ilegalizazioa, Lehendakariaren aurkako epaiketa…

3. Udal honek konponbide demokratikoa aldarrikatzen du, euskal herritarrok proiektu politiko guztien artean bere etorkizuna erabakitzeko eskubidean oinarrituko den konponbidea, hain zuzen ere.

partidos independentistas de Euskal Herria, juicio contra el Lehendakari….

3. Reivindicación por parte de este ayuntamiento de una solución democrática basada en el derecho de todos los ciudadanos vascos a decidir libremente su futuro entre los diferentes proyectos políticos.

Idazkia irakurri ondoren, gaia eztabaidatzeari ekin diote.

Seguidamente se procedió a debatir el asunto.

**Silva jn., EB-ARALARekoa:**

Guk hitza hartu nahi genuen, bai, bertan egon baikinen. Honen ondoren jakingo da, mozio honi mozio alternatibo bat edo emendakin bat EAJ, EB eta EAren aldetik, printzipioz, nik dakidala. Baloratzen egon gara mozio honen kontra botoa ematea edo abstenitzea. Batetik, koherentziaz badirudi mozio alternatibo bat aurkeztean aurrekoaren kontra eman behar dugula botoa, eta bestalde, gure kontzientziaren koherentziak galarazi egiten digu. Saiatu gara, eta modu askotan baloratu dugu. Ezin dugu mozio honen kontra jo, izan ere, bai lehenengo puntuan, bai hirugarrenean antolakuntza politikoari dagokionez, erabat ados baikaude, eta bigarren puntuan, era pertsonalagoan edo, erakunde politiko gisa gauza batzuekin ados egon gaitezke eta ez beste batzuekin. Beraz, areago jo gabe eta balorazio politiko orokorra eginez, Erakunde politiko gisa ezin dugu mozio honen kontra eman botoa, beraz, azkenik, abstenitu egingo gara. Garbi utzita torturaren aurka gaudela, tortura ematen bada salatu egiten dugu, mozio honi dagokionez, gero beste mozioan zehaztuko dugu edozein estatutako poliziaerakundeen aldetik, eta uste dugula ga-

**Sr. Silva de EB-ARALAR**

*Nosotros sí queríamos tomar la palabra porque hemos estado. Luego se sabrá después de esto, una moción alternativa o una enmienda a esta moción por parte del PNV, EB y de EA, que yo sepa en principio. Hemos estado valorando el si votar en contra o abstenernos en esta moción, por un lado teníamos la coherencia de al presentar una moción alternativa el tener que votar esta en contra y por otro lado tenemos la coherencia de nuestra conciencia que nos impide, lo hemos intentado y valorado de muy diferentes formas. Nos impide votar en contra de esta moción, porque, tanto en el primer punto como en el tercer punto a nivel de organización política estamos completamente de acuerdo y en el segundo punto de una forma más o menos personal como organización política podemos estar de acuerdo con algunas cosas y no con otras, por tanto, sin entrar más allá y ya haciendo la valoración política en conjunto en la siguiente moción no podemos como Organización política votar en contra de esta moción, por lo tanto, nos vamos a abstener. Dejando claro que estamos en contra de la tortura, no, denunciamos la tortura si es que se realiza. Refiriéndome a esta moción, luego ya diremos en la otra moción, por parte de cualquier organización poli-*

tazkaren konponketak edo zeinahi dela gure herrian bizi den horrek, elkarrizketaren bidez eta gizartearen eskubidearen bitartez askatasunez adierazita etorri behar duela.

*cial de cualquier estado y que creemos que la resolución al conflicto o como cada uno quiera llamarlo lo que vive este país, tiene que venir por el diálogo y por el derecho de la sociedad libremente expresado.*

**Alkate jn.:**

Tere, galdera bat egin nahi nuke. Abstenitu daiteke proposamen honen aurrean eta proposamen alternatibo bat aurkeztu? Edo kontrako botoa eman behar da?

**Sr. Alcalde:**

*Quería hacer una pregunta, Tere. Se puede abstener con respecto a esta propuesta y presentar una propuesta alternativa. O hay que votar en contra.*

**Idazkari and.:**

Lehenengo eta behin, hau ez da mozio bat. Herritar talde baten idatzia da. Mozioak Zinegotziek aurkezten dituztenak dira.

Bigarrenik, kontua da hau nola bozkatu beharko litzatekeen. Logikoena izango zen batzorde horrek erabaki izan balu zer zen Udalbatzara ekarri behar zena, lehenengo bozkatu beharko litzateke zer den gehiengoz Zinegotziek nahi dutena. Aho batez bada, askoz hobeto. Era horretako gaiak konpontzeko hori izan beharko litzateke prozedurarik egokiena. Bestela, kontraesana gerta daiteke eta zenbaitzuek baiezkoa ematea biei. Eta orduan, zer da hemen onartu dena? Logikoena da, zuek bilera egitea eta erabakitzea gehiengoz edo aho batez zer egin nahi duzuen. Hori da gero udalbatzara ekarri behar dena.

**Sra. Secretario.**

Primero. *Esto no es una moción. Es un escrito de una agrupación de ciudadanos. Las mociones son lo que presentan los Concejales.*

*Segundo: El tema es cómo se debería de votar esto. Lo lógico sería que en esa comisión posiblemente se hubiera decidido lo que traeis al Pleno, lo primero que se tendría que votar es lo que mayoritariamente la voluntad de los Concejales quiere. Si hay unanimidad, mucho mejor. Eso es lo que tendría que ser por el procedimiento adecuado para resolver este tipo de temas. Porque si no, se puede dar la contradicción de que haya gente que vote que sí a las dos cosas. ¿Entonces, qué es lo que se ha aprobado aquí?. Lo lógico es, una vez os hayais reunido vosotros decidais qué es lo que mayoritariamente o por unanimidad queréis hacer. Eso se trae al pleno.*

**Silva jn., EB-ARALARekoa**

Kasu honetan, nik kontsultak egin ditut eta mozio honetan lasai asko abstenitu gaitezke eta aldeko botoa eman bestean, eta baita aurkeztu ere. Egin egin daiteke, ez dago inolako arazorik, ez juridikorik ez kontraesandunik.

**Sr. Silva de EB-ARALAR**

*En este caso, yo he consultado y podemos abstenernos tranquilamente en esta moción y votar favorablemente la otra, incluso presentarla. Se puede hacer, no hay ningún problema jurídico ni contradictorio.*

**Castellet, PSE-EEkoa:**

Azkenean, argitu mozio bat edo idatzi bat den.

**Sr. Castellet del PSE-EE:**

*Al final, aclarar si es una moción o es un escrito.*

Ezberdina diot, gero ezberdin jaso behar delako aktan. Ez naiz beste gai batzuetan sartuko. Ez naiz hauetan sartuko eta gero beste gauza bat eztabaidatu. Silvak esan duen gauza batekin bat nator, bai. Uste dut denak gatozela bat horretan. Nire ustez denak gaude torturaren aurka, gertatzen dena da egotekotan demostratu egin behar dela, hor dago koska. Denak gaude torturaren aurka. Demostratu egin behar da torturatzen dela.

*Digo diferente porque se tiene que recoger diferente dentro de lo que es luego el acta. No voy a entrar en otros temas. No voy a entrar en estos y vamos a discutir otra. Sí comparto una cosa que ha dicho Silva. Creo que la compartimos todos. Yo creo que todos estamos en contra de la tortura, lo que pasa que eso hay que demostrarlo lo que se hace, esa es la cuestión. Todos estamos en contra de la tortura. Hay que demostrar que se hace la tortura.*

**Alkate jn.:**

Nomenklatura kontu bat da, azkenean arrosak usain gozo bera du beste izen bat eman arren. Kasu honetan, mozioak proposamen izena hartu du. Berdin-berdin bozkatu behar da, mozio bat balitz bezala, kasu honetan ez du zinegotzi batek aurkeztu, herritar batek aurkeztu du, berdin-berdin bozkatu behar da. Nire ustez, alferrikakoa da izenekin eta formekin nahastea, besterik ez badago esateko honi buruz esango nioke berriro hitza eskatu duen Anderri.

**Sr. Alcalde:**

*Es una cuestión de nomenclatura, al final una rosa huele igual de bien si se llama con otro nombre. En este caso la moción se llama propuesta. Igualmente hay que votarla, igual que si fuese una moción en este caso no es presentada por un Concejal, sino que es presentada por un ciudadano, hay que votarla de igual manera. Enredarnos un poco en los nombres y en las formas, creo que está de sobra, de alguna manera yo si no hay nada más que decir al respecto yo le pediría a Ander que ha pedido la palabra otra vez .*

**Borobia jn., PSE-EEkoa:**

Nik ez dakit, baina prozedura kontuagatik Idazkariak argi eta garbi azaldu beharko luke. Prozedurari dagokionez, hemen herritar batek aurkezturiko idatzi bat dugu. Mozio gisa eztabaidatu behar badugu, mozio bihurtu beharko dugu, edo bestela besterik gabe herritar batek aurkeztu duen idatzia edo ez dakit nola deitzen den Batzordeak egin duen idatzi alternatiboa mozio bihur daiteke, zinegotziek edo alderdiek aurkeztu dutelako. Orduan, orain ezin dena egin da idatzi hau mozio bihurtu, herritar batek aurkezturiko idatzia baita. Uste dut juridikoki argitu egin beharko litzatekeela hau, bestela, horren arabera, udalbatzetan ez bat, baita ehun idatzi ere izan ditzakegu, funtzional-

**Sr. Borobia del PSE-EE:**

*Yo no sé si por cuestión de procedimiento la Secretaria debería de aclarar muy mucho. Aquí es un escrito presentado por un vecino, por cuestión de procedimiento. Si vamos a discutirlo como moción tendremos que convertirla en moción o si no sencillamente al escrito presentado por un vecino la Comisión como se llame o el escrito alternativo eso se puede convertir en moción, porque los Concejales lo han presentado o los partidos lo han presentado. Entonces, lo que no cabe ahora es que esto se convierta en moción cuando es un escrito presentado por un vecino. Creo que jurídicamente esto se tendría que aclarar, porque si no, por esta regla de tres podremos tener en los plenos, no uno, cien escritos que se*

tasuna dela-eta mozio bihurtzen diren idatziak, kontuan izan gabe Bozeramaileen Batzordetik sortu den Batzorde honek ezin duela mozio gisa onartu, bestela ez dakit zeri irekiko diogun atea eta juridikoki, gure Arautegiak ere jasotzen du, Arautegiak esaten baitu zinegotzien edo korporatiboen kopuru jakin batek egon behar duela mozio bat abalatzeko. Uste dut juridikoki argitu behar dela gai hau.

*convierten en mociones, por cuestión de funcionalidad, independientemente de que luego esta Comisión que se ha generado de Junta de Portavoces no se puede admitir como moción, porque entonces abrimos la puerta a no sé el qué y jurídicamente incluso nuestro Reglamento lo reconoce, puesto que el Reglamento reconoce que tiene que haber un número determinado de Concejales o Corporativos que son los que avalan la presentación de la moción. Creo que jurídicamente se tiene que aclarar ese tema.*

**Idazkari and.**

Nire ustez garbi dago ez dela mozio bat, lehen ere halaxe esan dut.

**Sra. Secretario.**

*Para mí, es claro que no es una moción ya lo he dicho antes.*

**Borobia jn., PSE-EEkoa:**

Orduan, ezin dugu mozio gisa bozkatu. Idatzi bat den aldetik, idatziari buruz hitz egin dezakegu.

**Sr. Borobia del PSE-EE:**

*Entonces, no podemos votarla como moción. Como escrito podemos hablar del escrito.*

**Idazkari and.**

Mozioak, zinegotziek soilik aurkez ditzakete. Arautegiaren 14. artikulua.

**Sra. Secretario.**

*Moción, sólo lo pueden presentar los Concejales. Art. 14 del Reglamento.*

**Alkate jn.:**

Beste era batera deituko diogu.

Uste dut eztabaida antzua elikatzen ari garela, benetan uste dut formetan ari garela, funtsa aztertu gabe, hau da, bozkatu beharrean, alderdi bakoitzak bere iritzia eman dezala honi buruz. Zer deritzozu? Zer deritzozu alderdi bakoitzak Ander Uriartek aurkezturiko idatziari buruzko iritzia emateari?

**Sr. Alcalde:**

*Vamos a llamarle de otra manera.*

*Creo que nos estamos enredando en un debate estéril, sinceramente lo creo de formas y no estamos yendo al fondo, es decir, si en vez de votar, cada uno de los grupos manifiesta su opinión al respecto. ¿Qué te parece eso?. Qué te parece si cada grupo manifieste su opinión respecto al escrito presentado por Ander Uriarte.*

**Borobia jn., PSE-EEkoa:**

Nire ustez, zuek hasi behar duzue, mozio alternatiboa aurkeztu duzuenok, horrekin herritarraren idatziari kasu egin zaiola adierazten da, eta orduan mozioa edo alderdiek aurkezturiko idatzia eztabaidatuko dugu. Era horretan ekidingo dugu Arautegiari dagokionez balizko forma irregulartasunaren bat egiteko arriskua. Izan ere, herritar batek idatzi bat aur-

**Sr. Borobia del PSE-EE:**

*Yo creo, que tenéis que empezar vosotros que habéis presentado una moción alternativa, con lo cual, se ha hecho caso al escrito presentado por el vecino y entonces debatimos esa moción o ese escrito presentado por los partidos, con lo cual, zanjamos la posible irregularidad de forma que puede tener en relación al Reglamento, que es, el vecino ha presentado un escrito, los par-*

keztu du, Udal honetako alderdi politikoek jaso egin dute bere eginez eta dokumentu bat egin dute edo puntu batzuk, eta horixe izango da zinegotziok eztabaidatuko duguna.

*tidos políticos de este Ayuntamiento lo han recogido como suyo y han hecho un documento o unos puntos y eso es lo que los Concejales como tal debatimos.*

**Alkate jn.:**

Aurkeztu den idatzia garbi dago aurkeztu eta irakurri egin dela. Beraz, alde batera utzita duzun iritzia, oso ondo iruditzen zaidana gainera, eta eskubide osoa duzu zure iritzia adierazteko, baina uste dut ondoren zehaztuko dudan moduan egingo dugula:

Anderrek aurkeztu egin du bere idatzia, EBk komentatu egin du bere iritzia, zuena aurkeztu da, garbi dago, eta bakoitzak botako du bere iritzia. Ez dakit bozketa izena eman dakiokeen, baina berriro diot izenen kontua nahiko berdin zaidala.

Anderrek berriro eskatu du hitza, bigarren eta azken aldiz emango zaio, ondoren gure iritzia emango dugu, eta gero, taldeek, EBk, EAk eta EAJk mozio bat edo idatzi alternatibo bat aurkeztuko dugu, eztabaidatuko dugu eta bozkatu. Ados?

**Sr. Alcalde:**

*El escrito que se ha presentado está claro que se ha presentado y se ha leído. Entonces, independientemente de lo que opines que me parece muy bien y tienes todo el derecho a expresar tu opinión, creo que vamos a proceder de la siguiente forma:*

*Ander ha presentado su escrito, se ha comentado por parte de EB cual es su opinión se ha presentado la vuestra que es bastante patente, cada uno manifestamos nuestra opinión. No sé si se puede llamar votación, vuelvo a repetir que lo de los nombres me da un poco lo mismo.*

*Ander ha pedido otra vez la palabra se le va a conceder por segunda y última vez y manifestamos nuestra opinión y luego los grupos, EB, EA y EAJ-PNV presentamos una moción o un escrito alternativo a este, se debate y se vota. ¿De acuerdo?*

**Ander Uriarte herritarra.**

Hemendik aurrera mozio alternatiboan beraiekin kontatzeko esan du.

**Vecino, Ander Uriarte.**

Manifiesta que en lo sucesivo se cuente con ellos en la moción alternativa.

**Alkate jn.:**

*Besterik ez badago, egingo duguna da, beno, Ezker Batuak zerbait esateko badu, nahiko argi utzi dau bere jarrera. Alderdi Popularra, Alderdi Popularrak zerbait esan nahi du honetaz? Javier Atxurra?*

**Sr. Alcalde:**

Si no hay nada más, lo que vamos a hacer es, bueno, si Ezker Batua quiere decir algo… Ha dejado bien claro cual es su postura. El Partido Popular, el Partido Popular tiene algo que decir sobre esto? Javier Atxurra?

**Atxurra jn., EAkoa:**

*Beno, Vicentek argi du. Guk daukagu eskrito alternatiboa, hirurok, PNVk, Ezker Batuak eta guk, eta besterik ez, abstenitu egiten naiz Anderren…*

**Sr. Atxurra de EA:**

Bueno, Vicente lo ha dejado bien claro. Nosotros tenemos un escrito alternativo entre los tres, PNV, Ezker Batua y nosotros, y eso es todo, me abstengo.

**Alkate jn.:**

*Gure jarrera be, beno, uste dot, gu ez gagoz idazki horren kontra, ze hor jartzen direzen gauza horien kontra ez gagoz baina uste dut, ahaztu egiten dela beste zati bat, pelikularen beste zati bat ahaztu egiten da, ezta? Eta nik uste dot pelikula horren beste zatia be mahai gainean jarri behar dala. Horregatik aurkezten dana, ados egonda puntu batzuekaz, beno zelanbait, eta guk, beno, ez daukagu gauza handirik aipatzeko idazki horretaz baina beno, uste dut hirurok, beste zati hori be kontuan hartuta, beste mozio, idazki bat ikusi gendula bilera hartan. Bilera hartan egon zen Vicente, Atxurra eta Castellet eta zelanbait, hor idatzi hau adostu egin zan pasa den astean, eta ez dakit Iñigok irakurriko dauan.*
*Bai, ba daukagu. Hor dago.*

**Sr. Alcalde:**

Nuestra postura es... bueno, no estamos en contra de ese escrito, nosotros no estamos en contra de lo que se dice en el escrito pero creo que se olvida una parte de la película, y esa parte también tiene que ponerse sobre la mesa. Por eso, aunque de alguna manera estamos a favor de algunos puntos de ese escrito que se ha presentado, bueno, no tenemos mucho que decir sobre ello. Y teniendo en cuenta esa parte que se olvida, en aquella reunión los tres vimos otro escrito o moción. En esa reunión estuvieron Vicente, Atxurra y Castellet y la semana pasada se aprobó este escrito. No sé si lo va a leer Iñigo, si, ya lo tenemos, Ahí está.

**Bilbao jn., EAJ:**

***AMOREBIETA-ETXANOKO EAJ-PNVek, EB-IU-ARALARek ETA EAk HONAKO PROPOSAMENA AURKEZTU DUTE OSOKO BILKURARA:***

*1.- 18/98 prozesuko epaia gaitzesten du, praktikan demokrazian oinarrizkoak diren eskubideak eta askatasunak ideologikoa, adierazpen askatasuna edota elkartzeko eta parte hartzeko askatasuna.*

*2.- Adierazten du gatazka politikoak bakarrik giza-eskubide guztien erabateko errespetuaren bidez, bizitza eskubidetik hasita, eta soilik elkarrizketa demokratikoaren bitartez konpon daitezkeela.*

*3.- Berresten du egun Euskal herria eta espainiar Estatuaren arteko gatazkaren konponbidea herritarrak demokratikoki ordezkatzen dituzten indar politikoen arteko elkarrizketaren eta negoziazioaren eskutik iritsiko dela.*

**Sr. Bilbao, EAJ/PNV:**

**EAJ-PNV, EB-IU-ARALAR Y EA DEL AYUNTAMIENTO DE AMOREBIETA-ETXANO PRESEN-TAN AL PLENO LA SIGUIENTE PROPUESTA:**

1.- Mostrar su rechazo ante la sentencia del proceso 18/98 que, en la práctica, supone la conculcación de derechos y libertades básicos en democracia, como son la libertad ideológica, de expresión, de asociación o de participación ciudadana.

2.- Proclamar que sólo desde el estricto respeto de todos los derechos humanos, empezando por el derecho a la vida, y únicamente por la vía del diálogo democrático se pueden resolver los contenciosos políticos.

3.- Reitera que en la actualidad la solución del contencioso entre Euskal Herria y el estado español deberá venir por la vía del diálogo y la negociación entre las fuerzas políticas que representan democrá-

*4.- Elkartasuna adierazten die musu baketsuan eta demokratikoki Euskal Herriaren eskubideen alde lan egiten duten eta horregatik bidegabeki zigortuak izan diren guztiei.*

*5.- Herritar guztiei dei egiten die, norbanakoen eskubideak erabiliz, modu baketsuan eta demokratikoki lanean jarraitzera, normalizazio politikoa eta Euskal Herri askea eta bakean lortzeko.*

*6.- Akordio hau udalerriko biztanle guztiei eta komunikabideei helaraztea erabakitzen du.*

**Calvo and., PPkoa:**

Lehenengo eta behin esan behar dut aurreko idatzia Gai Zerrendan sartu izana egoera guztiz harrigarria eta zentzugabea iruditu zaidala. Mozio, idatzi edo nahi dugun bezala deituko diogu, baina denek dakigu hori ez dela mozio bat, eta badakigu nork aurkeztu duen eta nor ordezkatzen duen.

Ez da nahikoa izan abenduan testua irakurri izana, urtarrilean berriro kontu bera. Batekin nahikoa ez bazen, orain beste bat.

EAJk, EAk eta EBk aurkezturiko mozioari buruz.

Alderdi Popularra Zuzenbide Estatuan eta sistema demokratikoan benetan sinesten duen aldetik, justizia auzitegiei errespetua eta laguntza osoa adierazten die fronte guztietan terrorismoaren aurka daramaten borroka latz horretan. Beraz, 18/98 sumarioaren bitartez Audientzia Nazionalaren Zigor Salaren eskutik ETA-ren sare zibila kondenatzeko erabakiak gure errespetu eta laguntza osoa merezi du.

ticamente a la ciudadanía.

4.- Hace llegar su solidaridad a todas aquellas personas que desde posiciones pacíficas y democráticas trabajan a favor de los derechos de Euskal Herria y por ello han sido injustamente condenadas.

5.- Hace un llamamiento a toda la ciudadanía para que ejerciendo sus derechos individuales sigan trabajando pacíficamente y democráticamente para conseguir un escenario de normalización política y una Euskal Herria en paz y libertad.

6.- Trasladar este acuerdo a toda la ciudadanía del municipio y a los medios de comunicación.

**Sra. Calvo del PP:**

*Lo primero que tengo que decir, que se haya introducido en el Orden del Día el escrito anterior me parece una situación tanto sorprendente como aberrante. Sel-Llamará, moción, escrito o como queramos que se quiera llamar pero todos sabemos que esto es una moción y quien la presenta y lo que representa.*

*No basta con que el mes de Diciembre se haya leído el texto, sino encima en el mes de Enero la volvemos a tener, si no quieres taza, taza y media.*

*Respecto ya a la moción presentada por los grupos, PNV, EA y EB.*

*El Partido Popular desde su profunda creencia en el Estado de Derecho y en el sistema democrático, no puede sino expresar su respeto y apoyo a los tribunales de justicia en su ardua labor en la lucha contra el terrorismo en todos sus frentes. Por lo tanto, la decisión de la condena de la trama civil de ETA a través del sumario 18/98 por parte de la Sala de lo Penal de la Audiencia Nacional, merece todo nuestro respeto y apoyo.*

Sumario horren bitartez Audientzia Nazionalak kondenaturiko pertsonak zigortuta daude delitu oso larriak egin dituztelako, hala nola erakunde terrorista baten kide izatea edo haren esanetara egotea maila ezberdinetan. Zigortuen artean Xabier Alegria nabarmentzen da, kondenatua izan dena erakunde terrorista bateko buruzagi "oso kualifikatua" izateagatik, kaudimen falta zigorgarriagatik eta hazienda publikoari iruzur egiteagatik; komisario politiko eginkizunetan aritu izan da Batasunan ETAren jarraibideak eta ETAren diskurtso ortodoxoena zabaltzen, eta publikoki defendatu zuen auto-bonben "baliabidea". Vicente Askasibar, ETAko buruzagia izateagatik ere zigortua, terrorista "liberatuen" soldatak eta gastuak ordaintzeko arduraduna, edo Txema Matanzas, arrazoi berberagatik zigortua.

Alderdi Popularrekoek uste dugu ETAren aurkako borroka ez dela mugatu behar komandoak atxilotzera, terrorismoaren aurkako borrokak integrala izan behar du eta fronte guztietan egin behar zaio aurre, izan ere, ETAren egitura hiltzeko prest dauden ekintzaile talde soil batetik haratago baitoa. Erakundea berez osatuta dago eta beharrezkoa du finantza-sare bat, nazioarteko aparatu bat, fronte politiko, instituzional eta propagandistiko bat, hau da, sare militarraz gain, sare zibil eta politiko oso bat, guztiz egituratua, eta laguntza eta euskarri modura balioko diona.

Sententzia kolpe latza da gerizpetik luzaroan ekintza terroristak irautea sustatu duten sare politiko eta zibilen fronteak hedatzen jardun duten akuilatzaileen aurka.

Sententzia kolpe ikaragarria izan da justizia auzitegiek "ETAren urdail, bihotz eta burutzat" jotzen dutenaren aurka, eta horrek guztiak fronte instituzional, propagandistiko, nazioarteko eta finantzarioan erakunde terroristaren alde lan

*Las personas condenadas por la Audiencia Nacional a través de este sumario, lo son por la comisión de delitos todos ellos de extrema gravedad, como es el de pertenecer y estar al servicio de una organización terrorista en sus diferentes órdenes. Entre los penados destacan Xabier Alegría, condenado por dirigente "muy cualificado de organización terrorista, insolvencia punible y fraude a la hacienda pública, que ha ejercido de comisario político impartiendo en Batasuna las directrices y el discurso más ortodoxo de ETA y que defendió públicamente el "recurso" del coche bomba, Vicente Askasibar, también condenado por ser dirigente de ETA y que era el encargado de pagar los sueldos y gastos a los terroristas "liberados", o Txema Matanzas condenado por el mismo motivo.*

*Desde el Partido Popular entendemos que la lucha contra ETA no debe limitarse a la detención de comandos, la lucha contra el terrorismo debe ser un combate integral y afrontarse desde todos sus frentes, ya que la estructura de ETA va mas allá de la de un simple grupo de activistas dispuestos a matar. La organización se compone y necesita una red financiera, un aparato internacional, un frente político, institucional y propagandístico, es decir, toda una trama civil y política además de la militar, perfectamente estructurada que le sirva de soporte y apoyo.*

*La sentencia supone un duro golpe contra los instigadores que desde la sombra han venido desplegando los diferentes frentes de las tramas políticas y civiles que han sustentado la persistencia en el tiempo de la actividad terrorista.*

*La sentencia supone un duro varapalo a lo que los tribunales de justicia consideran el "estómago, el corazón y la cabeza de ETA", y todo ello, pone coto a la impunidad de los lideres del entramado ETA-*

egin duten ETA-Batasunako bilbearen liderren zigorgabetasunari ateak itxi dizkio.

Zorionez, eta aurkeztu den mozioak bilatzen duen helburuaren aurka, guztiz demokratikoa den sistema baten barruan bizi gara, prozesuko bermeak guztiz zainduta daude, baita deliturik handienak egin dituztenenen kasuan ere. Akusatuek eta ondoren zigortuak izan direnek epaiketa bidezkoa eta inpartziala izan dute, defentsarako eskubidearekin, errugabetasun presuntzioa errespetatu zaie, interpretariak izan dituzte akusatuek hala eskatu dutenean, eta errekurtsoa egiteko aukera ere bai, gure legediak ezarrita duen bezala.

Alderdi Popularraren ustez Euskal Herrian ez dago gatazka politikorik eta terrorismoa ez da gainditukoelkarrizketarekin, ETA garaituko dugu soilik Zuzenbide Estatuak eskaintzen dizkigun tresna guztiekin. Erabaki judizialei kritika egitea zilegi da sistema demokratiko baten barruan, baina kritika horiekin abertzaleek gure Zuzenbide Estatua eta gure erakunde demokratikoak desprestigiatzea bilatzen dute, haien haustura nahiak justifikatzeko xedez. Eta hori guztia, inolako oinarri juridikorik ekarri gabe sententziaren terminoak indarrik gabe uzteko.

*Batasuna que trabajan para la organización terrorista en el frente institucional, propagandístico, internacional y financiero.*

*Afortunadamente y en contra del propósito que persigue la moción presentada, vivimos dentro de un sistema plenamente democrático, donde las garantías procesales se encuentran perfectamente garantizadas incluso para aquellos que han cometido los mayores delitos. Los acusados y posteriormente sentenciados ha disfrutado de un juicio justo, imparcial, con derecho a defensa, respetando su presunción de inocencia, con intérpretes en aquellos casos que ha sido solicitado por los acusados y posibilidad de recurso, tal y como establece nuestra legislación.*

*Desde el Partido Popular consideramos que en el País Vasco ni existe un conflicto político, ni al terrorismo se le derrota con el diálogo, sino que únicamente derrotaremos a ETA con la aplicación de todos los instrumentos que nos brinda el Estado de Derecho. La crítica a las resoluciones judiciales son legítimas dentro de un sistema democrático, pero los nacionalistas lo que persiguen con ellas, es desacreditar a nuestro Estado de Derecho y a nuestras instituciones democráticas con el objetivo de justificar sus deseos de ruptura. Todo ello, sin aportar ningún fundamento jurídico que pueda contrarrestar los términos de la sentencia.*

**Silva jn. EB-ARALARekoa**

Idatzia Ander Uriartek aurkeztu du. Nik dakidala momentuz behintzat bere eskubide zibil eta politiko guztiak indarrean ditu, eta beraz, idatzi hori edo sudur puntan jartzen zaiona aurkez dezake, hori hasteko.

Bigarrena, talde politikoren batean izenean aurkezten duen ala ez, ideiarik ez

**Sr. Silva de EB-ARALAR**

*El escrito lo ha presentado Ander Uriarte que creo que es una persona que por lo que yo sé, hasta el momento tiene todos sus derechos civiles, políticos en plenitud que pueda presentar el escrito este o el que le dé la santísima gana, eso lo primero.*

*Segundo lugar, si lo presenta en nombre de alguna agrupación política que*

dut, eta jakingo banu ez nuke esango, eta are gutxiago PPren ordezkari baten aurrean. Aurkeztuko zuen akaso ANVren izenean, gaur egun legezko erakundea, uste dut. Hain da legezkoa, ezen batere susmagarria ez den Garzon epaileak, edo behintzat alderdi horietatik gertukoa ez dena, baimena eman dien era guztietako ekitaldi publikoak egiteko, momentuz erakunde legala baita. Hauxe bigarren puntua.

Hirugarrena: Zuzenbide estatu demokratiko batean bizi garela non legezko baldintza guztiak betetzen diren denentzat, izango da, nire iritzi guztiz apaletik, pertsona mota batzuentzat, ezta pertsona mota batzuentzat ere, zenbait *lobby*rentzat baizik, era batera edo bestera estatuaren mekanismo guztiak maneiatzen dituztenentzat.

Lehengo egunean areto honetan dagoen pertsona batek —eta zinegotzia dena, baina ez dut izenik esango agian molestatu egingo delako—, bota zuen gustatu zitzaidan esaldi bat, eta bere ahotik entzuteak harritu ninduena; guztiz konbentzituta bainago herri honetan —eta kasu honetan eta barkatu baten batek ez badu gustukoa, Estatu Espainolari buruz ari naiz oraindik estatu bat baita—, trantsizio dezente dago oraindik egiteke, baina premia handienetako bat justiziarena da, ezerk eta inork kontrolatzen ez duen boterea, berdin da zer esaten duzuen, zuek pertsonalki edo PS bera maneiatzen dituzuen alderdi politikoen eta botere ekonomikoen jarraibide politikoen esanetara dagoena. Guztiz lotsagarria iruditzen zait esatea presoen —eta ez nabil ETAko presoez—, eskubideak eta prozesuko bermeak betetzen direla. Hamaika adibide eman diezazuket, pertsona asko daude zenbait delituengatik, arrazoiz edo arrazoirik gabe, askotan delitu txikiak egiteagatik kartzelaratu dituztenak lau urterako, eta familiak ez du jakin nora joan behar

*no tengo ni idea o no y si lo supiera no lo iba a decir menos delante de una representante del PP. Lo presentaría en todo caso en nombre de ANV que creo que es una organización a día de hoy legal. Tan legal que el propio Juez Garzón no sospechoso de pro-nada por lo menos cercano a ninguna de estas partes, les ha permitido hacer todo tipo de actos públicos porque son de momento una organización legal. Eso lo segundo.*

*Lo tercero: El que vivamos en un estado democrático de derecho en el que se cumplen todos los requisitos legales para todos será desde mi punto de vista , desde mi humildísima opinión, será para cierto tipo de personas, ni siquiera para cierto tipo de personas, para ciertos lobbys que manejan de una u otra forma todos los mecanismos del estado.*

*El otro día dijo alguien que está en esta sala y que es Concejal pero no voy a decir su nombre porque igual le molesta que lo diga, una frase que me gustó y me sorprendió oír de él, porque es algo de lo que yo estoy plenamente convencido, que en este país y cuando digo este país, en este caso y con perdón al que le moleste, me refiero al Estado Español, de momento es un Estado, hay muchas para mí transiciones pendientes pero una de las mayores transiciones pendientes es la de la justicia, un poder que no está controlado por nada ni por nadie, digan lo que digan, que está al borde de lo que digan las directrices políticas de todos los partidos políticos y de todos los poderes económicos que manejais, tanto vosotros y sobre todo vosotros como no vosotros en persona y como el PS. Me parece una absoluta vergüenza decir que se cumplen los derechos, garantías procesales de los presos y no me refiero a los presos de ETA. Te puedo dar mil y un ejemplo de personas que han sido condenad@s por determinados delitos, seguramente con razón o sin razón por delitos*

zuen bisitatzera espetxez espetxe ibili dituztelako familia abisatu gabe. Guztiz lotsagarria iruditzen zait zer puntura iristen ari zareten.

Gauza bat esango dizuet. Ea benetan irabazten dituzuen hauteskunde orokorrak, zeren eta horrela Herri hau konturatuko da benetan nolakoak zareten eta agian Herri honek behingoz altxatuko du burua.

*menores que se les ha ingrasado en prisión al de cuatro años y que ni siquiera la familia ha sabido dónde deberían ir a visitarles porque se les ha ido cambiando de cárcel a cárcel sin dar aviso a su familia. Me parece una vergüenza absoluta al extremo al que estáis llegando.*

*Os voy a decir una cosa. Ojalá ganéis las elecciones generales porque ojalá así este País se dé cuenta de lo que sois de verdad y este País levante la cabeza de una vez.*

**Castellet jn., PSE-EEkoa**

Silvarena, hona datorren hile bakoitzean hobetzen da. Benetan. Kritika daiteke, edo esan daiteke Justizia ez dela beti justua, gizarte honetan gertatzen diren gauza asko justuak ez diren maila berean. Mundu guztia okertu daiteke, ados egon zaitezke, edo ez horrenbeste, Justiziaren epai batekin. Egon zaitezke, baina esatea hobe desagertzen bada... Frankoren garaira itzuliko ginateke berriro. Edo EBk zenbait egunkaritan esan duena esatea, Justizia Euskadin eduki behar dugula guk, gure erara bideratzeko. Hirukoak Justizia bideratzen du. Azken batean zera esaten du: beraiek bideratzen dutenez, guk ez dugu egiten. Hortik ditudan egunkariek diote. Ez zehatz-mehatz era horretan, baina hori esan nahi du.

Ez naiz gehiago luzatuko gai honekin.

Bilera horretan egon ginen idatzia aztertzeko eta EAk aurkeztu zigun idatzi alternatibo bat EAJk eta EBk bere egin zutena.

Alderdiaren organoetan sakon eztabaidatu dugu idatzi hau, puntuz puntu begiratu dugu, baina azkenik idatzi alternatiboaren balorazio orokor bat egin dugu. Irakurri egingo dut guk pentsatzen duguna:

**Sr. Castellet del PSE-EE:**

*Lo de Silva, se mejora cada mes que viene aquí. De verdad. Se puede criticar o se puede decir que la Justicia no siempre es justa como no es justo muchas cosas que pasa en esta sociedad. Todo el mundo se confunde, se puede estar de acuerdo, o menos de acuerdo con un fallo de la Justicia. Se puede, pero decir: Mejor que desaparezca. Volvemos otra vez al Franquismo. O decir también como se ha dicho en algunos periódicos por parte de EB. La Justicia la tenemos que tener nosotros en Euskadi. Así la impartimos nosotros a nuestra manera. El tripartito imparte la Justicia. Al fin y al cabo dice: Como la imparten ellos no la impartimos nosotros. Lo han dicho los periódicos lo tengo por ahí. No de esa manera, pero, es lo que venía a decir.*

*No voy a entrar más en el tema este.*

*Estuvimos en la reunión esta para analizar el escrito y se nos presento por parte de EA un escrito alternativo que hicieron suyo el PNV y EB.*

*Nosotros hemos discutido los órganos del partido este escrito en profundidad, hemos mirado punto por punto pero finalmente hacemos una valoración global de lo que es el escrito alternativo. Voy a leer lo que nosotros pensamos:*

Orain dela hogeita hamar bat urte, Herri honetan demokrazia hasi zen 40 urteko iluntasun aldiaren ondoren eta Parlamentu zentral bat eta autonomia parlamentuak sortu genituen, eta legeak onartu genituen Botere Legegilea eta Botere Judiziala ezarriz, bata bestearengandik independenteak. Horrek ez du esan nahi batak zein besteak beti asmatzen dutenik, baina horixe da dagoena, hobetu daiteke noski, baina bietako edozein zalantzan jartzea da sistema demokratiko bera zalantzan jartzea.

Horiek horrela.

1. Ulertzen dugu demokraziak gogortasun eta irmotasun osoz jardun behar izatea indarkeria justifikatu eta sostengatzeko politika eta demokrazia erabili nahi dutenen aurka. Biolentoak txalotu, animatu eta laguntzeko demokrazia eta politika erabili nahi dituztenek Justiziaren aurrean erantzun behar dute. Ezin dira inpunitatean utzi indarkeria terrorista babestu eta justifikatzen dutenak.

2.- Gure ustez Giza Eskubideei buruzko idatziak zerikusi handia du askatasunarekin; hau da, demokraziaren benetako iraupenerako funtsezkoak diren tolerantzia, pluralismoaren errespetua eta funtsezko joko arau batzuk onartzearekin.

3.- Alderdiek demokratikoki pentsatzen eta defendatzen dutenarekiko errespetua abiapuntua izanik. Gure ustez Euskadi eta Estatuaren artean ez dago inolako gatazkarik. BAKEA ezin da inondik inora izan gizarte plural bati egiten zaion proiektu Abertzale baten inposizioaren ondorioa. BAKEAk izan behar du demokraziaren garaipenaren eta herritar askeen gizarte bat eraikitzeko aukeraren ondorioa, ez da posible elkarbizitza politikoa eraikitzea Euskadin ez badago oinarritua Konstituzioaren eta Estatutuaren markotik eratortzen diren Eskubide eta askatasunetan, eta edozein kasutan abertzaleen zilegizko

*Hace algo más de treinta años este País empezó una democracia después de 40 años de oscuridad y nos dotamos de un Parlamento central y los diferentes parlamentos autonómicos y nos dotamos de unas leyes, estableciendo un Poder Legislativo y un Poder Judicial independientes uno del otro, sin que esto signifique que tanto un poder como el otro acierten siempre, pero es lo que hay y evidentemente es mejorable, pero el cuestionar cualquiera de ellos es cuestionar el mismo sistema democrático.*

*Por todo ello.*

*1.- Entendemos la necesidad de que la democracia actúe con toda contundencia y firmeza contra quienes justifican y amparan la violencia y lo quieren hacer desde la política y la democracia. Quienes pretenden aprovecharse de las mismas aplaudiendo, jaleando y dando respaldo a los violentos tienen que responder ante la Justicia. No se pueden mantener en la impunidad a quienes amparan y justifican la violencia terrorista.*

*2.- Entendemos que el escrito respecto de los Derechos humanos tiene mucho que ver con la libertad; es decir, la tolerancia, el respeto al pluralismo y la aceptación de unas reglas del juego esenciales para la vigencia efectiva de la democracia.*

*3.- Partiendo de la premisa del respeto a lo que piensa y defiende democráticamente los diferentes partidos.*

*Entendemos que entre Euskadi y el Estado español no existe conflicto alguno. Que la PAZ no es ni puede ser consecuencia de la imposición del proyecto Nacionalista a una sociedad plural. Que la PAZ debe de ser el triunfo de la democracia y que podamos construir una sociedad vasca de ciudadanos libres no es posible una construcción de convivencia política en Euskadi que no derive del marco de Derechos y libertades*

erreBindikazioak gure uztez beti egin beharko lirateke indarkeriarik gabe eta talde politiko eta euskal gizartearen kontsensu bidez.

4.- Sententzia judizialekiko ezadostasunak onartzen ditugu, betiere behar den errespetu eta zuzentasunez egiten badira. Zuek (EAJ, EA, EB, HIRUKOITZA) arduragabekeria handia erakusten duzue Estatuaren parte izanik, neurririk gabe eta oso modu tremendistan zalantzan jartzen duzuenean Estatua bera eta sistema demokratikoa.

5.- Zuei dagokizue herritarren eredu izatea, eta erakustea sententzia batekin ados egon zaitezketela edo ez, baina inor ez dagoela legearen gainetik. Mundu guztiak men egin behar die Justiziaren sententziei, eta esku artean ditugun tresna juridikoak erabili aldatzeko, eta ez jarri zalantzan eta zilegitasuna kendu edozein demokraziaren funtsezko botereari, oso arriskutsua baita denentzat.

Hori guztia dela eta, Amorebieta-Etxanoko PSE-EEk ez du onartzen zuen idatzia edo mozioa.

*nacidos de la Constitución y del Estatuto y en cualquier caso de las reivindicaciones legítimas de los nacionalistas, entendemos se deberían hacer siempre en ausencia de violencia y con el consenso de la mayoría de grupos políticos y de la sociedad vasca.*

*4.- Admitimos la discrepancia contra las sentencias judiciales siempre que se haga con el debido respeto y corrección. Vds. (PNV, EA, IU, EL TRIPARTITO) demuestran una gran irresponsabilidad cuando, formando parte del Estado, ponen en cuestión de manera desmesurada y tremendista al propio Estado y al sistema democrático.*

*5.- A ustedes les corresponde dar ejemplo a la ciudadanía de que, efectivamente, se puede o no compartir una sentencia pero nadie está por encima de la Ley. A todo el mundo le corresponde acatar las sentencias de la Justicia y utilizar los instrumentos jurídicos a nuestra disposición para cambiarlas y no poner en entredicho y deslegitimar un poder básico de cualquier democracia porque es muy peligroso para todos.*

*Por todo ello EL PSE-EE de Amorebieta-Etxano muestra su rechazo a su escrito o moción.*

**Bilbao jn., EAJkoa:**

*Lehenengo eta behin esan alderdi moduan eskatzen dugula, ez bakarrik zinegotzi batek, gure alderdiko pertsona batek esan duela transizioa organo judizialetan behar dela, hori ez dau esaten pertsona batek, hori alderdi moduan bereganatzen dugu. Eta hori argi utzi nahi dugu, Espainiar Estatuko erakunde judizaletan transizioa behar dala, ze argi ikusi da momentu honetan eta argi ikusten ari da Espainiako justiziako zerbitzuek interes politikoei jarraitzen dietela, eta hori argi ikusten da eta oso argi ikusi izan izan da Atutxaren kasuan eta nolatan*

**Sr. Bilbao, EAJ/PNV:**

En primer lugar, decir que lo solicitamos como partido, no un concejal solamente, una persona de nuestro partido que dice que se necesita una transición, sino que eso lo hacemos nuestro como partido. Y eso lo queremos dejar bien claro, que es necesaria una transición en las instituciones judiciales del estado español, puesto que ha quedado bien claro que los servicios de justicia españoles siguen unos intereses políticos. Eso ha quedado patente en el caso Atutxa y en la manera de llevar a cabo todo ese proceso. Y en el proceso abierto contra el Lehendakari también se ha visto muy

*eraman den prozesu guzti horrekin eta horretaz gain, Lehendakariari be zabaldu jakon prozesuan oso argi ikusten da espainiar estatuko justizia erakundeek interes politikoei jarraitzen dietela. Eta horretaz gain be oso argi ikusten da nolatan elekzio bezperetan elekzioak baino lehenago nolatan beno, batzutan komenigarria denean, partidu batzuk ilegalizatzea, beste batzuk ez dira komeni, oso argi ikusten da hor be espainiar estatuko erakundeek interes politikoei, interes politikoen atzetik jarraitzen dutela. Eta esan nahi dugu, Castelletek komentatu duen bezala, erakundeen parte hartzea eta, nolatan esaten da erakundeen aurka joatea, gu ez goaz erakundeen aurka, guk esaten duguna da erakundeak hobetu ahal direla, eta lehen esan duten bezala be bai, oraindik transizioa erakunde judizialetan oraindik ez dela egin, eta hori da guk eskatzen duguna, eta hori eskatzeak ez du esan nahi horren kontra edo hori nahi ez dugunik, esaten duguna da gauzak hobetu behar direla, ze agi dago momentu honetan ondo ez daudela. Beste barik.*

claro que las Instituciones de justicia del Estado español sirven a unos intereses políticos concretos. También ha quedado patente como en vísperas de elecciones conviene ilegalizar a unos partidos y a otros no, ahí también se ve claramente que las instituciones estatales siguen unos intereses políticos. Queremos comentar, tal y como ha dicho Castellet sobre la participación en las instituciones e ir en contra de ellas, que nosotros no estamos en contra de participar en las instituciones; lo que nosotros decimos es que se pueden mejorar. Y como han dicho anteriormente, que todavía no se ha realizado la transición en las instancias judiciales, y eso mismo es lo que nosotros pedimos, lo cual no quiere decir que estemos en contra de esas instituciones o que no las queramos. Nosotros simplemente decimos que las cosas se pueden mejorar, porque lo que está claro es que en este momento no van bien. Eso es todo.

**Silva jn., EB-ARALARekoa**

Oso sinple: Inongo momentutan ez dut esan Justiziaren aurka nagoenik, guztiz kontrakoa, esan nahi izan dudana izan da justizia egotea nahi dudala. Oraintxe bertan, nire ikuspuntutik ez dago justiziarik, Konstituzioa edo beste gauza batzuei men egiten diezue zuek, eta beste batzuk eta guk geuk gure karguari zin egiten diogunean, eta errespetatu egin behar ditugu modu gutxi gorabehera inposatuan. Modu berean guk, eta nik neuk edo nire erakunde politikoak eskubide bera dugu esateko ez dugula justizia mota hau nahi eta EAJko zinegotziak esan duena esateko eskubide bera du esan duenean amaitu gabeko trantsizio bat dagoela justiziaren arloan, gure ikuspuntutik ere bukatu gabe dago trantsizio hori gai horretan eta beste

**Sr. Silva de EB-ARALAR**

*Muy sencillo: En ningún momento he dicho que esté en contra de la Justicia, todo lo contrario lo que he querido decir es que quiero que haya justicia. Ahora mismo desde mi punto de vista, no la hay. En la misma forma que vosotros u otra gente o nosotros incluso acatamos la Constitución cuando juramos aquí nuestro cargo o acatamos otras cosas o tenemos que respetar porque de una forma más o menos impuesta tenemos que respetar las cosas, de esa misma manera nosotros o yo mismo y mi organización política tienen el mismo derecho a decir que no quiere ese tipo de justicia y tiene el mismo derecho a decir como ha dicho el Concejal de EAJ-PNV que hay una transición inacabada en el tema de la justicia. Desde nuestro punto de vista, la*

batzuetan ere, baina honetan hain zuzen ere zalantzarik gabe, gure iritzia da, eta edozein pertsona arruntak izan dezakeen iritzia da ikuspegi objektibo batetik begiratzen badu, alderdietatik urrunduta, ez politikeriatik, baizik eta apartidismotik, hau da inongo alderdiko kide ez den ikuspegitik. Izan ere, botere judiziala, edozein gobernuko botere exekutiboa Parlamentu batek kontrolatzen du, bertan alderdi politikoak egoten dira, batzuk ala besteak izango dira alderdiok, baina horiek kontrolatzen dute. Botere exekutiboa horrek eta baita botere judizialak berak kontrolatzen dute. Legegilea legegilearen barruko organoek kontrolatzen dute eta baita botere judizialak. Legegilea legegilearen barruko organoek kontrolatzen dute eta baita botere judizialak. Botere judiziala ez du inork kontrolatzen, are gehiago, botere politikoaren eskua da. Botere Judizialeko Kontseilu Nagusia Alderdi Politikoek izendaturiko pertsonek osatzen dute. Pertsona horiek jardun dezakete hedabideei esaten hemen deituriko hirukoitza, ez dakit hemengoaz ala katalanaz ari diren, azken batean beti baita gauza bera, guk ez-ikusiarena egiten dugula ETArekin, eta ez da ezer pasatzen, esan dezakete eta ez da ezer pasatzen. Guk dena kondenatu behar dugu, eta egin egiten dugu horretan sinesten dugulako egiten dugunean, baina ez kendu beste gauza batzuen kontra gaudela esateko eskubidea aurka gaudenean, horixe da esan nahi dugun gauza bakarra. Gu erdian gaudela esate horri ere ez esaten diogu. Gu zentroan gaude, baina guretzat zentroa ezkerra da, zenbat eta ezkerrago orduan eta zentroago, baina hori gauzak ikusteko gure ikuspegia da eta esateko eskubidea dugu. Esan egiten dugu, gutxi gara, aldatu nahi dugu, eta hori ez digu inork kenduko.

Auzitegi Konstituzional bat egotea dagoena bezalakoa, Konstituzio Espaino-

*hay inacabada en ese tema y en otros temas pero en ese tema de una forma fehacientemente es nuestra visión y es que creo que la visión que puede tener cualquier persona media que lo vea desde un punto de vista objetivo y desde la distancia y desde el apartidismo, no desde el politicismo sino desde el apartidismo, desde la no pertenencia a ningún partido político, es decir, el Poder Judicial, el Poder Ejecutivo de cualquier Gobierno está controlado por un Parlamento en el que existe de una u otra forma una serie de partidos políticos, pueden ser unos, pueden ser otros, pero está controlado por eso. El poder Ejecutivo está controlado por eso además y por el Poder Judicial. El Legislativo está controlado por los órganos que lo controlan dentro del propio legislativo y por el Poder Judicial. El legislativo está controlado por los Órganos que lo controlan dentro del propio legislativo y por el poder judicial. El Poder Judicial no está controlado por nadie, es más, es la mano del poder político. El Consejo General del Poder Judicial está formado por personas nombradas por los Partidos Políticos, personas que se pueden dedicar a decir en los periódicos que el tripartito, llamado aquí tripartito, - no sé si se refieren al Catalán o a éste, porque ya siempre es lo mismo-, que nosotros somos connivente de ETA y no pasa nada, pueden decirlo y no pasa nada. Nosotros tenemos que condenar todo y lo condenamos porque creemos en ello cuando tenemos que hacerlo pero no nos quitéis el derecho a decir que estamos en contra de otras cosas cuando también los estamos. Es lo único que queremos decir. Eso de decir que nosotros estamos en el medio. No, nosotros estamos en el centro, pero para nosotros el centro es la izquierda contra más izquierda más centro, pero es nuestra forma de ver las cosas y tenemos el derecho de decirlo. Lo decimos, somos pocos pero lo queremos cambiar y eso no nos lo va a quitar nadie.*

laren arabera, teorian eskubide eta betebehar pertsonalak eta estatuko lege guztiak erabat bermatzen dituena, eta azken batean estatu demokratikoen artean Auzitegi Konstituzionalik barregarriena izatea, hori hala da, bere akats eta guzti, eta batez ere gehiengoa duten bi alderdi nazionalista espainolak borrokan aritzen diren lekua ea nork kontrolatuko duen epaile hau edo beste lege bat edo beste ateratzeko. Hori bai da benetan barregarria. Barregura ematen die Frantzian, Britainia Handian, eta baita Ameriketako Estatu Batuetan ere. Han hobeto ala okerrago, baina epaileak jendeak aukeratzen ditu behintzat, dirua izan edo ez. Eta lau urtetan ez badute bere lana egiten kale gorrira. Hemen ez.

*El que haya un Tribunal Constitucional como el que hay que se supone que es el garante mayor según la Constitución Española de todos los derechos deberes personales, de las leyes de todo el Estado y que sea la mayor risa de los Tribunales Constitucionales de cualquier Estado democrático, eso sí, más o menos de verdad con sus fallos sobre todo donde se estén peleando los dos partidos mayoritarios nacionalistas españoles para ver quién controla este juez o quien controla este otro juez para que una ley pueda salir o no. Eso es de risa. De risa en Francia, Gran Bretaña hasta en Estados Unidos donde por lo menos los jueces los elige la gente, peores o mejores, con dinero o sin dinero. Si en cuatro años no hacen su trabajo a la puñetera calle. Aquí. No.*

**Calvo and., PPkoa:**

EBk hasieran egin duen interbentzioari ez diot erantzungo, ez baitu merezi, berak nireekin egiten duen bezala.

EAJk aipatu duen gaiari buruz, uste dut arau bat urratu duela, gutxienez justiziaren aurrean jarri eta gaiari buruz dagoen sententziari men egin behar dio. Hori besterik ez.

**Sra. Calvo del PP:**

*A la intervención que ha hecho EB al principio no voy a contestar porque no merece ni que la conteste, como hace él con mis intervenciones.*

*Respecto al tema que ha dicho el PNV, creo quien ha infringido una norma, tiene por lo menos que ponerse ante la justicia y acatar la sentencia que hay sobre el tema. Simplemente eso.*

**Castellet jn. PSE-EEkoa:**

Vicenteri esan nahi diot guk daukagula daukagun justizia, eta hobetu daitekeela, eta hobetu behar dela, jakina, baina hauxe da daukaguna eta Herri honek hartu zuena orain dela hogeita hamarretik gora urte, demokrazian gaudenetik. Zuk uste ala ez demokrazian gaude eta Europako azken lekuan gaudela pentsatzen baduzu ere, eta ikusi egin beharko litzateke gainera, batez ere Ameriketako Estatu Batuei dagokienez, eta iritzia emateko eskubidea duzu, noski, hau txarto dagoela, eta beste hori okerrago, edo erdi ondo eta hobetu behar dela. Zentzu horretan arazo-

**Sr. Castellet del PSE-EE:**

*Decir a Vicente, que tenemos la justicia que tenemos y que se puede mejorar y hay que mejorarla evidentemente, pero es la que tenemos y es la que ha adoptado este País hace unos treinta y tantos años, desde que estamos en democracia, independientemente de que tú creas que estemos o no estemos y de que este País sea el de la cola de Europa, que habría que verlo, sobre todo de Estados Unidos y tienes derecho a opinar, evidentemente, de que esto está mal o que está peor, medio bien o que se tiene que mejorar. En ese sentido no hay ningún problema y puedes opinar porque estamos*

rik ez, eta iritzia eman dezakezu estatu demokratiko batean gaudelako, jakina.

EAJk esan digunari dagokionez, betikoa berriro ere, justiziaren trantsizioa, ados nago justizia hobetu behar dela, irakaskuntza, osasungintza eta beste pila bat gauza hobetu behar diren bezalaxe, garbi dago hobetu behar dela, eta hobetu daitekeela gainera. Sententziak daude ez bakarrik gai politikoetan, baita gai zibilei buruzkoak. Nola egin daiteke? Egin daiteke epaileak pertsonak direlako eta pertsonak okertu egiten dira, batzuk nahi gabe okertzen dira eta beste batzuk pixka bat nahita, baina ezin da justizia osoa zaku berean sartu bi, hiru, lau edo hamar epailerengatik, pila bat direnean.

Atutxa eta instituzioen gaiak atera behar zuen, Gobernu Zentrala instituzioen aurka doala, Atutxaren aurka.

Guk ez dugu gai horietan sartu nahi. Egia da esaten zaigula PSk ANV legez kanpo utziko duela kanpainan gaudelako, eta abar. Atutxaren gaia, Lehendakariarena ere gauza bera da, herria aurrez aurre jartzeko gaiak dira. Ez dugu hortik sartu nahi. Egia dena da, egun hauetan gertaturikoak gure uztez ezarritako muga guztiak gainditzen dituela. Non ikusi da herritar guztiak, abertzaleak izan ala ez, ordezkatzen dituen gobernu bat justiziaren aurkako manifestazio baten buruan, hemen baino ez, eta ez da lehenengo aldiz gertatzen, guk nahiago genuen fiskaltzaren irizpidea eta ez *manos limpias* moduko sindikatu baten kasazio-errekurtso bat, muturreko eskuinaren tresna bilakatu dena politika judizializatzeko eta pasatuta edo amortizatuta zeuden gaiak berriro irekitzeko.

Boterearen banaketak ez du esan nahi botere legegilea immune izatea eta edozein ordezkari politiko zigorgabea iza-

*en un estado democrático, evidentemente.*

*En cuanto a lo que nos ha dicho por parte del PNV, también más de lo mismo. Transición de la justicia, estoy de acuerdo que se mejore la justicia, lo mismo que se tiene que mejorar la enseñanza, la sanidad y otro montón de cosas, claro que hay que mejorarla y es mejorable. Hay sentencias no sólamente en temas políticos, sino sentencias en otros temas civiles. ¿Cómo se pueden hacer?. Se pueden hacer porque son jueces y son personas y se equivocan, algunos se equivocan sin querer y otros se equivocan un poco queriendo, pero, no se puede tratar a toda la justicia por dos, tres, cuatro o diez jueces cuando hay un montón de ellos.*

*Tenía que salir el tema de Atutxa y de las Instituciones, que el Gobierno Central va en contra de los Instituciones, de Atutxa.*

*Nosotros no queremos entrar en estos temas. Es verdad que se nos dice, es que el PS ahora va a ilegalizar ANV porque estamos en campaña. etc.. El tema de Atutxa, el tema del Lehendakari podríamos decir también que es lo mismo, son temas que son para enfrentar a la población. No queremos entrar ahì. Lo que sí es verdad que lo ocurrido estos días para nosotros sobrepasa todos los límites establecidos. En que lugar se ha visto todo un Gobierno, que representa a todos los ciudadanos, sean nacionalistas o no, encabece una manifestación en contra de la justicia, sólo es aquí y no es la primera vez que esto ocurre, nosotros hubiéramos preferido el criterio de la Fiscalía y no el recurso de casación de un sindicato como manos limpias que se ha convertido en el instrumento de la derecha extrema para judicializar la política y reabrir asuntos que políticamente ya estaban pasados o amortizados.*

*La división de poderes no es que el poder legislativo sea inmune y cualquier*

tea botere judizialekiko.

Eusko Legebiltzarreko Legeak edo beste edozein Parlamenturenak konstituzioaren aurkako jo ditzake Auzitegi Konstituzionalak, hau ez da eraso bat baizik eta sistemaren logika, espainol guztiek erabaki dugun sistema bat da, euskaldunak barne, eta horren bitartez dute euskaldunek autogobernua. Hau horrela da, eta horren kontra egoteak, batez ere gobernu bat horren kontra egotea, zeren eta alderdi gisa atera daiteke, hau da, manifestazioa alderdi gisa egingo dugu, baina herritar guztiak ordezkatzen dituen gobernu bat, abertzaleak izan ala ez, guri nahiko burugabea iruditzen zaigu.

*representante político impune respecto al poder judicial.*

*Las Leyes del Parlamento Vasco o de cualquier otro Parlamente pueden ser declaradas inconstitucionales por el Tribunal Constitucional, esto no es agresión sino la lógica del sistema, un sistema del que nos hemos dotado todos los Españoles, incluido los Vascos y por el cual tienen su autogobierno. Esto es así y el estar en contra de ello, sobre todo un Gobierno porque se puede salir como Partido, es decir, hacemos la manifestación como Partido, pero un Gobierno que representa a todos los ciudadanos, sea Nacionalista o no, a nosotros nos parece un poco como descabellado.*

**Silva jn., EB-ARALARekoa**

Gauza bat besterik ez. Oraingoan ez dakit zer gertatzen zaidan, batzuetan ezin eskurago jartzen didazue.

Nik ez dut inoiz ikusi inongo gobernurik inongo manifestazioaren buruan Justiziaren aurka, inoiz ez, ezta larunbat hartan egon nintzenean ere, ez baitut uste justiziaren aurkako manifestazio bat zenik, beste gauza batzuen aldekoa baizik. Ikusi dudana da PSren Gobernuko Presidente bat ministroen talde baten buru espetxe batera joaten buru terrorismoarengatik zigortuak zeuden pertsona batzuk defenditzera. Hori bai, hori ikusi dut.

**Sr. Silva de EB-ARALAR**

*Solo una cosa. Esta vez, no sé lo que me está pasando, a veces me lo ponéis a "huevo".*

*Yo no he visto ninguna vez a ningún Gobierno encabezando ninguna manifestación en contra de la Justicia, nunca ni tan siquiera el sábado que estuve. Ni tan siquiera ese día que estuve, porque no creo que fuera una manifestación en contra de la justicia, era a favor de otras cosas. Lo que sí he visto es a un Presidente de Gobierno del PS con ministros a la cabeza yendo a una cárcel a defender a personas condenadas por delitos de terrorismo. Eso sí que lo he visto.*

**Atxurra jn., EAkoa:**

Ez dakit Vicentek ez ote didan pentsamendua irakurtzen. Gauza bera esan behar nuen.

Antonio, bi aldiz esan duzu, bi une ezberdinetan, pertsonak okertu gaitezkeela, arazoa da zu epailea bazara eta ni kondenatua, zu nahasten bazara ni kartzelara noa, eta gure herri honetan horixe gertatzen ari da, eta gertatu da prozesu famatuarekin, eta nire iritziz, baten bat

**Sr. Atxurra de EA:**

*No sé si Vicente me lee el pensamiento. Iba a decir exactamente lo mismo.*

*En dos ocasiones diferentes, Antonio, has dicho que las personas nos podemos equivocar, el problema es que si tú eres el juez y yo el reo, tú te confundes y yo voy a la cárcel y en este País mío, eso está ocurriendo y ha ocurrido con el famoso proceso, en mi opinión, que a alguno de ellos les conozco personalmente y estoy*

pertsonalki ezagutzen dut eta guztiz konbentzituta nago errugabea dela. Hau benetan larria da. Ez dakit zenbat aldiz esan den hemen, justizia Pachecok esan zuen bezalakoa dela, kontua ez da ezin denik hobetu, baizik eta okerragoa dela.

*superconvencido de que al menos esa persona es inocente. Eso realmente es grave. Se ha dicho no se cuántas veces que efectivamente aquí la justicia como dijo Pacheco, que no es que no sea manifiestamente mejorable, sino aún peor.*

**Alkate jn.:**

Uste dut nahikoa eztabaidatu dela gaiari buruz, bozketa egingo dugu.

**Sr. Alcalde:**

*Creo que está suficientemente debatido el asunto, procedemos a la votación.*

Aldeko hamaika botorekin, EAko Atxurra, EB-ARALARreko Silva eta Rodriguez, eta EAJ/PNVko Artetxe, Bilbao, Aurtenetxe, Gallastegi, Agirrebeitia, Chamizo, Gandiaga eta Latxaga jn./and.enak, eta aurkako bost botorekin, PPko Calvo andrearena eta PSE/EEko Castellet, Borobia, Hernandez eta Saralegi jaun/andreenak, Udalbatzak hauxe erabaki du:

ERABAKIA:

EAJ-PNV, EB-IU-ARALAR eta EAren proposamena, hitzez hitz jasotzen dena, onestea.

La Corporación por mayoría de once votos a favor de las Sras/Sres; Atxurra de EA, Silva y Rodriguez de EB-ARALAR, Artetxe, Bilbao, Aurtenetxe, Gallastegi, Agirrebeitia, Chamizo, Gandiaga, y Latxaga, y cinco en contra de la Sra. Calvo del PP., Castellet, Borobia, Hernandez y Saralegi de PSE-EE.

ACUERDA:

Aprobar la propuesta formulada por EAJ-PNV, EB-IU-ARALAR Y EA, transcrita.

**10.- ESKARIAK ETA GALDERAK**

**ANDER URIARTE HERRITARRA**

Bere iritzia eman du Gai Zerrendaren ondoko gai hauei buruz:
2. puntuari buruz, Udaletxearen eraikina eraberritzeko eta handitzeko proiektua. Eta 5. puntuari buruz, Udal Arautegi Organikoaren 43. artikuluaren aldaketa, Gai Politiko eta Erakundeen arteko Harremanei buruzko Batzordea sortzeko.

**10.- RUEGOS Y PREGUNTAS.-**

**VECINO ANDER URIARTE**

Comenta su opinión sobre los puntos siguientes del Orden del Dia.

Punto 2.- Proyecto de reforma y ampliación del edificio de la Casa Consistorial y del punto nº 5 del Orden del día, Modificación del Art. 43 del Reglamento Orgánico Municipal para la creación de la Comisión de Asuntos Políticos y Relaciones Institucionales.

Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, bukatutzat jo da bilera goizeko hamar eta erdiak direnean. Idazkari naizen honek, akta hau egin eta bertako guztia EGIAZTATZEN DUT.

Y no habiendo más asuntos que tratar se dio por finalizada la sesión, siendo las diez horas y treinta minutos, extendiéndose la presente acta de todo lo cual como Secretario CERTIFICO.

**Amorebieta-Etxanoko Udala**
**Bizkaia**